Euskal Herriko Unibertsitatea (1980) unibertsitate publikoa eta ikertzailea da, euskal gizartean errotuta dago eta nazioarteko bokazioa, lidergo intelektuala eta konpromiso etiko eta soziala ditu. Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate publiko bakarra denez, Graduak eta Graduondoko Ikasketen eskaintza zabala du ezagutza-esparru guztietan; Zientzia Esperimentaletako eta Osasun Zientzietako titulazioen eskaintza eskusiboa duela nabarmendu behar da. Aintzatetsitako kalitatezkoa izanik gure gizartean unibertsitate-prestakuntzaren alorrean dauden premiei erantzuneko dien eta Graduak, Graduondoko, Doktoregoko eta Etengabeko Prestakuntzako prestakuntza-egitura berriarekin bateragarria izango den prestakuntza eskaintzeko planteatzen da eskaintza hori.

Azkeneko hiru urteotan, Shangaiko *ranking*ean munduko 500 unibertsitate onenen artean mantendu da. Horrenbestez, hezkuntza-eskaintza zabaleko unibertsitatea da, nazioartean aitortutako ikerketa-jarduerara gauzatzen duena (izan ere, Euskadiko ikerketaren eragile nagusia da) eta campus ugaritan antolatuta eta lurralde askotan txertatuta dagoena. EHUk eta Bordeleko Unibertsitateak Euroeskualeko Campus bat sortu dute, lankidetzaren elementu zentral gisa, goi-mailako prestakuntzarako eta nazioartean ospea izango duen bikaintasun-ikerketarako gune bat eratzeko goi-mailako hezkuntzaren, ezagutzaren ekonomiaren eta berrikuntzaren esparruan diharduten eragileen artean.

Deustuko Unibertsitatea (1886) ekimen sozialeko unibertsitatea da, Jesusen Konpainiaren –IAJU International Association of Jesuit Universities– munduko unibertsitate-sarearen (200 zentro) eta Aristos Campus Mundus Bikaintasun Campusaren parte dena, Pontificia Comillas, Ramón Llull, Georgetown, Boston College eta Fordham unibertsitateekin batera.

DUK, gizarteari zerbitzu publikoa eskaintzeko euskal bokazio eta bokazio unibertsal batetik abiatuta, honako hauen aldeko konpromisoa azpimarratu nahi du: 1) justizia soziala: batetik, pertsonen prestakuntza integralaren –balioak, gaitasunak eta ezagutzak– bidez, ikasleak profesional lehiakor eta herritar arduratsu eta konprometituta gisa prestatuz, eta bestetik, kalitatezko ikerketaren bitartez, pertsonen ongizatea lortzen

³ Iturria: Geuk egina Unibertsitate Informaziorako Sistema Integratuko Ikerbasqueren 2018ko Zientzia Txosteneko datuetan oinarrituta.

laguntzen duten proiektuei bereziki erreparatuta; eta 2) giza garapen jasagarria: gizarteak dituen geroz eta erronka korapilatsuagoei erantzunez eta hezkuntzan, ekonomian, gizartean eta teknologian berrikuntza –erakunde, enpresa eta entitate sozialekin lankidetzan garatua– txertatuta. Deustu unibertsitate-proiektuak Bilboko campusean eta Donostiakoan du presentzia, eta egoitzak dauzak Madrilen eta Gasteizen.

Egitura juridiko berezia eta bakarra du, kooperatiba baita. Mondragon Korporazioko kide da onura publikoko eta irabazi-asmorik gabeko unibertsitatea da, unibertsitate-irakaskuntzako proiektu propio bat kapitalizatzen du, eta bere idiosinkrasiak hezkuntza eredua, ikerketa aplikatua eta inguruko enpresa-sarearekiko hurbiltasuna du ezaugarri bereizgarri. Mondragon Korporazioaren parte da. 1997an eratu zen, ibilbide luzea zuten hiru goi mailako hezkuntza-kooperatibak sustatuta. Hasieran, irakaskuntza teknikoetan eta ingeniartzetan, enpresen kudeaketa, administrazio eta zuzendaritzaren eremuan eta hezkuntza-eremuko eta maisutzako profesionalen prestakuntzan espezializatu zen, eta ikus-entzunezko komunikazioaren, ekintzailtzaren eta gastronomia-zientzien eremuetara zabaldu zen geroago.

Lurralde-ezarpenaren ikuspuntutik, gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan egiten duen jarduera Gipuzkoara eta Bizkaira mugatuta dago. Lau fakultate ditu, 9 campusetan banatuak (Arrasate, Oñati, Eskoriatza, Aretxabaleta, Ordizia, Donostia, Irun eta Hernani eta Bilbon).


Euskal Unibertsitate Ekosistema = EUSeko unibertsitateak + tarteko eragileak + oinarrizko ikerketan espezializaturiko eragile zientifikoak

1.1 Euskal Unibertsitate Ekosistema

Euskal Unibertsitate Sistema legez aitortutako errealitatea da eta, beste atal batzuetan jada adierazi dugun bezala, hiru unibertsitatez osatuta dago gaur egun: EHU, DU eta MU. Lege-kontzeptualizazio horretaz haratago, jasota dago Euskal Unibertsitate Ekosistemak errealitate aberatsagoa barne hartzen duela, honako hauek gehitzen baititu:

- **Sistemari** nazioarteko talentua erakartzen eta titulazioen, irakasleen eta zentroen kalitatea egiaztatzen **laguntzeko eragileak**, hala nola Ikerbasque eta Unibasq.
- Mota desberdinetako eragile zientifiko eta teknologikoen arteko koordinazioa gauzatzeko gai diren **tarteko eragileak**, hala nola Euskampus edo 4Gune Hezkuntzako Klusterra, EUSeko unibertsitateen Ingeniaritza, Zientzia eta Teknologia Fakultateak biltzen dituena.
- **Oinarrizko ikerketan espezializatutako eragile zientifikoak**, EUSekin oso lotura estua duten zeharkako ezagutza-alorretakoak, hala nola Oinarrizko Ikerketarako eta Bikaintasun-ikerketarako Zentroak (BERC deritzenak).

Askotariko erakundeak dira, espezializazio desberdinetakoak, eta EUSen jardueratik getu daudenez, bilakaeran kontuan hartu behar diren funtsezko erreferenteak dira.












3. irudia: Euskal Unibertsitate Ekosistema⁴.

BERC zentroak

Euskadirako interes zientifikoa duten eremuetan ezagutza sortzeko egiturak dira Oinarrizko Ikerketarako eta Bikaintasun-ikerketarako Euskal Zentroak (Basque Excellence Research Centres, BERC), eta ikerketaren bikaintasuna da haien ezaugarri nagusia. Erakunde horiek sortzen dira abangoardiakoak izateko Euskal Unibertsitate Sistemari eta Euskadin egiten diren ikerketa zientifikoko guztietan, baita Europako ezagutza-erakargune izan daitezzen ere, munduan zehar dauden beste zentro batzuekin batera.

BERC sistema bederatzi zentrok osatzen dute; zentro guztiak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean (ZTBES) sartuta daude, eta helburu komun jakin batzuk dituzte denek, hala nola hauek: zentroak Euskadin gauzaturiko ikerketa zientifikoko osoaren erreferente gisa sendotzea; zentro horiek mundu osoko ikerketa-zentroekin konektaturiko ezagutza-erakargune europar gisa kokatzea nazioartean; eta espezializazio zientifikoko arloetan –lurralderako estrategikotzat harturikoetan– mundu-aintzatespena duten ikertzaileak eta talentua erakartzeko gune aurreratu gisa kokatzea Euskadi.

1. taula: BERC sistema. 2017. urtea⁵.

Erakundea	Ikastetxearen izena	Ikerketa-arloak	BERC gisa kreditatutako urtea	Kontratatutako eta atxikitako langileak
	Basque Center for Neuroscience	Neurona-gliaren artean ezartzen diren elkarrekintzen biologia	2012	83 (13 Ikerbasque)
	Basque Center for Climate Change	Osasuna, klima eta natura-ingurumena	2008	51 (8 Ikerbasque)
	Basque Center for Applied Mathematics	Matematika aplikatua eta konputazioa	2008	96 (7 Ikerbasque)
	Basque Center on Cognition Brain and Language	Neurozientzia kognitiboa eta hizkuntzaren ikerlanak	2008	102 (6 Ikerbasque)
	Basque Center for Materials, Applications and Nanostructures	Materialen zientzia	2012	49 (2 Ikerbasque)
	Donostia International Physics Center	Oinarrizko Fisika eta aplikatua	2008	124 (25 Ikerbasque)
	Biofisika Bizkaia Fundazioa	Biofisika biomolekular eta zelularra	2008	107 (8 Ikerbasque)
	Basque Center for Macromolecular Design and Engineering	Polimeroen sintesia, mihiztatzea eta prozesatzea	2012	114 (7 Ikerbasque)
	Materials Physics Center	Materialen fisika	2008	119 (7 Ikerbasque)

2017an, aurrekontuaren 25,5 M€ mobilizatu zituzten BERC zentroek, 845 ikertzaile eta I+G-ko langilerekin, horietako 83, Ikerbasqueko ikertzaileak.

Ekoizpen zientifikoari dagokionez, 2008an lehenengo BERC zentroak sortu zirenez geroztik 2016ra, zentro horiek 4.658 dokumentu argitaratu dituzte *Web of Science (WoS)* plataforman guztira; izan ere, Euskadin urtean egindako ekoizpen zientifikoaren % 7 izatetik % 15 izatera igo da BERCen lana; halaber, dokumentu bakoitzak 14 aipamen izan ditu eta guztizko H indizea 90 puntukoa izan da.

2021. urterako, espero da⁶ Ikerbasqueko 50 ikertzaile gehiago egotea BERC zentroetan, aurrekontuaren 36 M€ baino gehiago mobilizatzea eta guztira 1.100 langile izatea; horrek agerian uzten du korrelazioa dagoela Ikerbasqueko ikertzaileak halako zentroetan sartzaren eta ikertzaile horiek sartzen diren zentroek bilakaera positiboa izatearen artean.

⁴ Iturria: Geuk egina.

⁵ Iturria: Geuk egina.

⁶ Iturria: Ikerbasqueren 2018-2021 plan estrategikoa.



4. irudia: BERC zentroak, zifratan. 2017. urtea⁷.

Euskampus Fundazioa

euskampus

Euskampus erakundeen arteko tresna gisa eratu zen 2011n, Euskampus Nazioarteko Bikaintasun Campus proiektua gobernatzeko eta kudeatzeko

Euskampus Fundazioa erakundeen arteko tresna gisa eratu zen 2011n, EHUren Euskampus Nazioarteko Bikaintasun Campus (CEI) proiektua gobernatzeko eta kudeatzeko; Euskampusen kide fundatzaileak EHU bera, Tecnalia Korporazioa eta Donostia International Physics Center (DIPC) izan ziren.

Hauek dira Euskampusen helburu nagusiak:

- Erronka sozial eta globalei aurre emateko eta Fundazioko bazkideen nazioarteko bikaintasuna areagotzeko jomugak dituzten lankidetzak-jarduerak bultzatzea eta kudeatzea Fundazioko erakundeen artean, lurraldeko beste erakunde batzuekin eta nazioarteko erakundeekin.
- Erreferente eta euskarri gisa eratzea, Fundazioko bazkideak elkarreaginean aritzeko euren ikerketa- eta prestakuntza-gaitasunen beharra izan edo onura jaso dezaketen bertako nahiz nazioarteko erakunde eta kolektibo publiko eta pribatuekin, neurrira egindako zerbitzuak eta proiektuak diseinatuz eta bultzatuz erakunde eta kolektibo horiek prestakuntzari, ikerketari eta berrikuntzari dagokienez izan ditzaketen beharrak asetzeko.
- Nazioarteko bikaintasuneko eta lurraldearekin konektatzeko ekimen bereziak hartzea eta garatzea.

Gaur egun, arlo hauetan kontzentratzen ditu Euskampusen bere ahaleginak:

- EHUren eta Bordeleko Unibertsitatearen arteko aliantza sendotzea, Bordele-Euskampus Mugaz Gaindiko Campusaren eta Akitania-Euskadi Euroeskualeko Campusaren esparruan.
- Komunitatean ezagutza-erakarguneak sortzea.
- Kultura Zientifikoko Unitatea abiaraztea.
- Zientzia- eta ikerketa-jarduerak zabaltzea eta hedatzea.
- Erronka programa/Ezagutza-erakarguneak sustatzea.
- 4Gune Hezkuntzako Klusterraren idazkaritza teknikoa.

4Gune Klusterra

4GUNE

4Gune Klusterraren helburua Euskadiko Unibertsitatea+Enpresa lankidetzak sendotzen laguntzea da

4Gune Ingeniaritza, Zientzia eta Teknologia Klusterra 2017an jarri zen abian, eta Euskadiko Unibertsitatea+Enpresa lankidetzak sendotzen laguntzeko helburua du.

Klusterra, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila buru dela, Euskadin finkatuta dauden Ingeniaritza, Zientzia eta Teknologia Eskola eta Fakultateek eta IMH Makina Erremintaren Institutuak osatzen dute baina, horietaz gain, Confebask Euskadiko Enpresarien Konfederazioa eta Basque Industry 4.0 Gidaritza Taldea ere klusterrean

⁷ Iturria: Ikerbasque, Zientzia Txostena 2018.

2019-2022 USPek etapa berri bati hasiera emango dio unibertsitate-politika diseinatzearen alorrean; etapa berri horretan gehiago nabarmenduko da EUS eta EUSeko

sartuta daude; klusterraren jarduera honako hauetan datza: batetik, unibertsitate, ikerketa-eragile eta enpresen artean aliantza egonkorak lantzea, horien arteko elkarlan eta atzeraelikadura ziurtatzeko, ezagutza sortze eta transferitze aldera; bestetik, Euskadin zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren alorrean dauden politikei buruzko informazioa partekatzea, arreta berezia ipinita nazioartekotzea sustatzean.

Honako hauek dira 4Gune Klusterraren bi fundazio-helburu nagusiak: Batetik, enpresa-beharrak identifikatzea, eta Graduoko eta Graduondoko prestakuntzaren eta bizi osoko prestakuntzaren eskaintzak garatzea, erantzun eraginkorak emateko; eta bestetik, sektoreetako enpresetan moldakortasun eta enplegarritasun handiko profesionalak prestatzea, etorkizuneko fabrika adimentsuan lan egiteko gai izan daitezen.

Unibasq

Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari atxikitako erakundea da, EUSen esparruan kalitatea ebaluatzeke, egiaztatzeke eta ziurtatzeko helburua duena.

Unibasq-en helburu nagusia EUSen alorrean kalitatea sustatzea eta bermatzea da, esparru nazionala eta nazioartekoa kontuan hartuz, baita EUS hobetzen laguntzea ere. Hori lortzeko, eginkizun nagusi hauek ditu:

- Irakasleak eta ikertzaileak ebaluatzea eta egiaztatzea.
- Unibertsitate-irakaskuntzak ebaluatzea.
- Irakasleen eta ikertzaileen ikerketa-merezimendu indibidualak ebaluatzea, ordainsari osagarriak esleitzeko eta legez emandako eskumenen arabera egiaztatzeke, baita Eusko Jaurlaritzak ikerketa-jarduerarako ezartzen dituen helburuen betearazpena ebaluatzea ere.
- Erakundeak ebaluatzea eta egiaztatzea.
- EUSen kalitateari buruzko gaietan aholkuak ematea.

Unibasq-ek, unibertsitate-hobekuntzan eta -berrikuntzan laguntzeko duen zeregina gauzatu, Unibertsitatea+Enpresa lankidetzan, nazioartekotzean, genero-berdintasunean eta euskararen erabilerearen normalizazioan egiten du lan.

Ikerbasque

Ikerbasque Euskadiko Zientzien Fundazioa 2007an sortu zen eta ikerketa zientifikoa garatzen laguntzeko helburua du, bikaintasun-irizpideetan oinarrituta ikertzaileak erakarri eta berreskuratuz.

Euskadin zientzia indartzeko xedea izanik eta ikerketa-zentroekin eta unibertsitateekin lankidetzan, Ikerbasquek plataforma egonkorra izan nahi du, Euskadiko ikertzaileek eta erakunde zientifikoek ezagutza berria sortzen laguntzeko aukera izan dezaten bertatik.

Ikerbasqueren bitartez, 2017an 221 ikertzailek gauzatu dute euren jarduera Euskadiko unibertsitateetan eta ikerketa-zentroetan, eta ikertzaile horietako asko nazioartekoak izan dira. % 68 Ikerbasque Research Professors deritzenak dira, ikerketa-alorrean esperientzia handia duten ikertzaileak, hain zuzen; beste % 4, berriz, Ikerbasque Research Associates dira, hots, ikerketa-alorrean heldutasuna frogatu duten eta euren karrera zientifikoa finkatzen ari diren langileak; gainerako % 28a, azkenik, Ikerbasque Research Fellows dira, hau da, etorkizun handiko karrera zientifikoa duten ikertzaile juniorrak.

Ezagutza-alorren arabera, Ikerbasquen lan egiten duten ikertzaileen % 48,4k zientzia esperimentaletan dihardu; beste % 22,2k, ordea, medikuntza-zientzietan; % 17,2k, berriz, gizarte-zientzietan; eta % 12,2k, azkenik, ingeniarietan egiten du lan.

Ikerbasqueren zereginetako bat Euskadin ikerketa zientifikoa sustatzea da; horren ildotik, hainbat erronka finkatu ditu 2021erako, besteak beste, Euskadik estatuko ekoizpen zientifikoaren barnean duen garrantzia handiagotzen jarraitzea, guztizkoaren % 7,25era iritsi arte, eta betiere ikerketa horren produktibitatea, kalitatea eta inpaktua hobetuta eta genero-berdintasuna azpimarratuta.

Ikerbasquek aurreikusita du 120 ikertzaile gehiago kontratatzea 2018-2021 aldian.




Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legearen bidez sortua, EUSen kalitatea sustatzeko eta bermatzeko helburua du Agentziak



Basque Foundation for Science Zientziaren Euskal Sistema dinamizatzeko erakargunea da, talentu zientifikoa txertatzeko eta finkatzeko duen gaitasun egiaztatuari esker

1.2 Ibilbide historikoa Sistemaren plangintzan

Euskadin azken bi hamarkadetan abiarazi den unibertsitate-politikak hainbat etapa garrantzitsu izan ditu; etapa horien artean, erabakigarria izan zen Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legearen onspena 2004an.



5. irudia: Euskadiko unibertsitate-politiken plangintzaren bilakaera.

2000-2006 aldia lehenengo etapa izan zen; etapa hartan, unibertsitateek eta Eusko Jaurlaritzak garatu beharreko ekintzak itundu zituzten. 2000tik 2004ra, formulazio hori EHUr mugatuta egon zen, baina 2004an Euskal Unibertsitate Sistemaren Legea onetsi zenetik aurrera, EUS osora zabaldu zen, hots, DUra eta MUra. Plangintza-baliabide hori gai jakin batzuei buruzko programa-kontratuetan oinarrituta dago, eta hainbat alor zehazten ditu, hala nola prestakuntza, ikerketa eta euskara.

Lehenengo etapa, programa-kontratuetan oinarritua eta EUSen unibertsitate guztietara zabaldua, garrantzi handiko gertaera izan zen, aitzindaria izan baitzen estatu osoan; izan ere, egoitza Euskadin duten unibertsitate guztietara laguntza esplizitua bideratzen du.

2007-2018 aldia bigarren etapa izan zen eta plan integralen sorkuntzak markatu zuen, Euskal Unibertsitate Sistemaren Legeak berak jasotzen duen bezala; halaber, ekintzak proposatu ziren EUS osorako, programa-kontratuaren mekanismo espezifikoaz aparte. Hein handi batean, plangintza antolatzean eta sistematizatzean ipintzen dute arreta plan horiek.

Bigarren etapak hiru plan hartzen ditu barne: lehenik, 2007-2010eko Unibertsitate Plana, 2011-2014ko Unibertsitate Plana eta 2015-2018ko Unibertsitate Plana; halaber, funtsezko bi alderdik markatzen dute bigarren etapa: batetik, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren (GHEE) eta Europako Ikerketa Esparruaren (EIE) finkapenak, esparru-programen bitartez; bestetik, EUSen plangintza, jarraipen eta ebaluaziorako gaitasunek izango duten aurrerabideak berak.

Sistemaren plangintza integraleko eta heldutasuneko testuinguru horretan, 2019-2022 Unibertsitate Sistemaren Plan honekin plangintza-etapa berri bati hasiera emango zaio; elementu hauek markatuko dute etapa berria:

- Lehenik eta behin, eta izen berriak aditzera ematen duen bezala, **Sistema osorako plan** bat da. Ikuspegi horretan oinarrituta, Eusko Jaurlaritzak lehentasuneko esku-hartzea eskatzen duten esparru jakin batzuk zehazten ditu; horretarako, nola Eusko Jaurlaritzak hala EUSeko unibertsitateek ekimen jakin batzuk martxan jarri behar dituzte, baliabideak inbertitzeko ahaleginak partekatuta. Sistemaren jomugak dira benetan garrantzitsuenak, eta epe laburrean, ebaluazio-ahalegina kontzentra dezakete; beste jomuga batzuk, ordea, instrumentalagoak dira, aurreko beste plan

Ia bi hamarkada Euskadin unibertsitate-politika planifikatzen: 2000n egin diren lehenengo programa-kontratuetatik 2015-2018ko Unibertsitate

batzuetan programa-kontratuekin lotuta zeuden jomugen kasuan bezalaxe. Mobilizatuko diren baliabideak ez dira soilik Eusko Jaurlaritzatik etorriko; izan ere, berezko baliabideekin inbertitzeko konpromiso zehatz eta argia hartu dute unibertsitateek euren gain, eta beste iturri batzuetatik ere lortuko dira baliabideak.

- Bigarrenik, **planen plan** bat da, eta garrantzi handiagoa ematen dio estrategiari ekintza espezifikoak babesteari baino; izan ere, Planean nabarmentzen da ekintzen orientazioak eta irismenak bilakaera logikoa izan behar dutela Planaren lau urteko indarraldian. Beste modu batean esanda, Eusko Jaurlaritzaren plangintzaren eta unibertsitateen plangintzaren arteko giltzarri gisa jokatzeko du Planak.
- Hirugarrenik, **plangintza-baliabide irekia** da, denbora igaro ahala bilakaera izan dezakeena, bere indarraldian, sortuko diren elementu garrantzitsuei erantzuteko, hala nola hauei: Titulazioen Mapa abiaraztea (aurrerago azalduko da horren irismena); Espezializazio Adimentsurako Estrategia (RIS3) eguneratzea, 2020an diseinatuko den Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Plan berriaren bitartez; eta bilakaera izan behar duten zenbait esparrutan EUSeko unibertsitateek izango duten aurrerakada espezifikoak, zertan itxaron gabe Plana amaitu arte.

Ikuspegi horretatik, 2019-2022 Unibertsitate Sistemaren Plana Eusko Jaurlaritzaren plana da, EUSen bikaintasunean aurrera egiteko lehentasunak identifikatzea du helburu, eta EUSeko unibertsitateei euren garapen-ardatzetan plangintza txertatzeko eskatzen die. Plan honek, mobilizatu beharreko ekintzen eta baliabideen ikuspegi osoa izanik, ezinbestekotzat jotzen dituen elementuak sustatzera bideratzen ditu Eusko Jaurlaritzaren baliabideak eta, horretaz gain, unibertsitateek beste baliabide batzuekin egin nahi duten beste edozein ekintza (dagokien autonomia baliatuta) ere barne hartzen du.

2 Sistemaren kokapena eta erronken identifikazioa

Euskal Unibertsitate Sistemak kokatuta dagoen gizartearen eta munduaren eskari berrietara egokitu behar du, eta aintzat hartu behar ditu, halaber, azkenean prestakuntzaren, zientziaren eta teknologiaren garapen-eritmoak eta -estandarrak markatzen dituzten beste unibertsitate-sistema batzuk, bere ahulezia propioei erantzuteaz gain.

Bestelako elementuekin alderatuta duen egoera erlatiboak zehazten du, hain zuzen ere, bai EUSen kokapena bai 2019-2022 aldian aurre egin beharreko erronkak.

2015-2018ko Unibertsitate Planak Aginte Taula bat du bi mailatan: EUSen adierazleak eta planaren gauzatzeko adierazleak

2.1 Barne-analisia: 2015-2018ko Unibertsitate Planaren tarteko ebaluazioa

2017ko urrian 2015-2018ko Unibertsitate Planaren Tarteko Ebaluazio bat egin zen, EUSek Espainiako eta Europako unibertsitate-sistemekin alderatuta izandako aurrerabidea, 2015-2018ko Unibertsitate Planean bildutako helburu estrategikoen gauzatzeko-maila eta adierazleak 2015eko eta 2016ko programa-kontratuaren ezarritako jomugekin alderatuta izandako aurrerabidea analizatzeko.

Illo horretan, nabarmentzekoa da 2015-2018ko Unibertsitate Planak adierazleen eta jomugen Aginte Taula bat duela; bi mailaren daude multzokatuta adierazle eta jomuga horiek:

- **Euskal Unibertsitate Sistemaren adierazleak:** Sistemak nolako bilakaera izan duen deskribatzen dute, dela Planaren jarduketan ondorioz dela Planaren eraginik izan ez duten beste testuinguru-elementu batzuen ondorioz.
- **2015-2018ko Unibertsitate Planaren adierazleak:** Plana nola gauzatu den kontrolatzen dute eta, horretaz gain, helburu estrategikoen adierazleetan programa-kontratuaren adierazleetan banatzen dira.

2. taula: 2015-2018ko Unibertsitate Planaren Sistemen adierazleak⁸.

Tipologia	Adierazlea	Iturria	Hasierako egoera	Eguno egoera	2018ko helburua	Betepena
Baliabideak	Unibertsitateek I+Gn egindako gastua BPGd-ren gainean	Eustat	%0,36 2013	%0,27 2016	%0,37	
	Hirugarren mailako hezkuntza duen populazioaren (25-64 urte) ehunekoa	Eurostat	%47 2014	%49,7 2017	%49	
Hezkuntza eta nazioartekotzea	EAEko Unibertsitate-sistemako gradua eta masterra atzerrian ikasten ari diren ikasleen ehunekoa	PZ	%4,2 2014	%5,3 2016	%5	
	EAEko Unibertsitate-sisteman goi-mailako hezkuntzan (gradua, masterra eta doktoregoa) matrikulatutako nazioarteko ikasleen ehunekoa	PZ	%6,1 2014	%6,8 2016	%6,6	
	Nazioarteko irizpideekin kontratatutako irakasle eta ikertzaileen kopurua	PZ	151 2014	184 2016	184	
	Doitutako enplegu-tasa	Labide	%73,1 2013	%83,0 2016	%73,5	
	Unibertsitateen barruko I+G gastuaren ehunekoa, finantzaketa publikoarekin	Eustat	%90 2013	%88 2015	%86	
	Unibertsitateen barruko I+G gastuaren ehunekoa, finantzaketa pribatuarekin	Eustat	%6 2013	%6,2 2015	%7	
	Unibertsitateen barruko I+G gastuaren ehunekoa, atzerriko finantzaketarekin	Eustat	%4 2013	%5,7 2015	%7	
	Unibertsitateen barruko I+G gastuaren ehunekoa, I+G gastu osoari dagokionez	Eustat	%18,2 2013	%18,4 2015	%20	
	I+G-n Euskadiko Oinarritzko Ikerkuntzan goi mailako hezkuntzako erakundeek egiten duten gastu arruntaren ehunekoa	Eustat	%57 2013	%65 2015	%60	
	Graduatu doktore berriak (25-34 urteko populazioaren %)	Eustat	%1,8 2011	%2,2 2015	%1,9	
Ikerketa eta transferentzia	Argitalpen zientifikoaren kopurua (Scopus)	PZ	2.904 2011	2.959 2016	3.254	
	Argitalpen zientifikoaren kopurua (WoS)	PZ	2.636 2011	3.070 2016	2.954	
	Argitalpenen ehunekoa lehen kuartilean JKZ (Scopus, Scimagoko JKZ balioekin)	PZ	%58 2013	%60,9 2016	%58	
	Argitalpenen ehunekoa lehen kuartilean JKZ (WoS, JKZ balioekin)	PZ	%56 2013	%56,7 2016	%57	
	Nazioarteko baterako zientzia-argitalpenen ehunekoa (Scopus)	PZ	%38 2013	%50,1 2016	%41	
	Nazioarteko baterako zientzia-argitalpenen ehunekoa (WoS)	PZ	%44 2013	%54,1 2016	%47	
	EAEko Unibertsitate-sisteman bizitzan prestatzen ari diren ikasle-kopurua	PZ	19.030 2014	21.970 2016	20.490	
	EAEko Unibertsitate-sistemaren kontratupeko diru-sarrerak (ME)	PZ	14,9 2014	17,0 2016	16,6	
	EAEko Unibertsitate-sistemak sortutako enpresetako enplegu-kopurua	PZ	47 2014	138 2016	95	

Adierazleak hobek ziren prestakuntza-esparruan ikerketa-esparruan eta transferentzia-esparruan baino; halere, 2018an denak iritsi ziren jomuga-betearazpena

Planaren erdian –2016an– adierazle guztiek izandako bilakaeraren analisi xehatuak adierazle horiek hiru kategoriatan multzokatzea ahalbidetzen digu:

- **2018rako ezarritako jomuga bete duten adierazleak.**

Horren adibide dira, esate baterako, prestakuntza-xedearekin eta nazioartekotze-aldagaiarekin lotutako adierazle guztiak, hala nola helduen hezkuntza-maila, EUSEko tituludunen enplegarritasuna dagokien prestakuntza-mailaren arabera lanpostuetan, EUSEko ikasleen artean atzerrian ikasten dutenen ehunekoa, EUSen matrikulatuta dauden ikasle atzerriarren ehunekoa, eta nazioarteko irizpideekin kontratatutako irakasle ikertzaileak.

Ikerketa- eta transferentzia-xedeen kasuan, joera oneneko adierazleek hauekin zerikusia dute; doktoreak diren ikertzaileak sortzeko gaitasuna; ekoizpen zientifikoak; transferentzia-jarduera neurtuak, hala nola EUSEko kontratu bidez lortutako diru-sarrerak; bizitza osoko prestakuntzan dauden ikasleak; eta Sistemak eraturako enpresetan sortutako enpleguak.

- 2018rako ezarritako jomugaranzko bidean **aurrerakada egokia izaten ari diren** adierazleak.

Ikerketa- eta transferentzia-xedearen adierazleak –EUSen I+G-ko barne-gastuaren finantzaketaren jatorriari buruzkoak– dira horren adibide bat, Planean finkatutako norabidean aurrera egiten badute ere, finantzaketa pribatu eta nazioarteko finantzaketa gehiago lortzeko xedea oraindik ez baita iritsi 2018rako finkatu ziren jomugetara.

- 2018rako ezarritako jomugaranzko bidean **aurrerakada egokia izaten ari ez diren** adierazleak.


Esate baterako, EUSEko unibertsitateek I+G-n egindako gastuarekin (Euskadin I+G-n egindako guztizko gastuarekin alderatuta eta BPGd-arekiko termino erlatiboetan neurtua) lotutako adierazleak.

⁸ Iturria: Geuk egina.

Kokapen berberari eusten dio UE-28rekin alderatuta, tituludunen enplegagarritasunari dagokionez

Laburbilduz, Sistemaren adierazleen % 67 jada iritsi da 2018rako ezarrita zegoen xedera, eta beste % 19 erritmo egokiko bilakaera ari da izaten; horrek esan nahi du Planaren amaieran –2018an– xedeen % 85 gaindituta egongo dela, aurreikuspenen arabera.

UE-28ren eta Euskadiren arteko aldea txikiagotu egin da, I+G-ko gastuan unibertsitateek duten protagonismoari dagokionez



6. irudia: 2015-2018ko Unibertsitate Planean bildutako sistema-adierazleen betetze-maila⁹.

Bestalde, EUSen adierazle batzuk eta kokapenaren eta bilakaeraren inguruan eskuragarri dauden beste adierazle batzuk UE-28koekin alderatuz gero, ikusten dugu EUSen adierazleek joera erlatibo aldakorra dutela:

- **Kokapen erlatibo hobea finkatu dela islatzen duten** adierazleak (EUSek abiapuntu-balio eta bilakaera hobeak UE-28k baino).

Hala nola hezkuntza- eta nazioartekotze-adierazle guztiak eta ikerketa- eta transferentzia-adierazle gehienak; horien barnean, hau da nabarmengarriena:

- Prestakuntza-jarduera hori biztanleriaren ehuneko handi batera iristen da eta, horrenbestez, UE-28ko batezbestekotik gora dago Euskadi, baita Europa 2020 estrategian bilduriko jomugetatik gora ere, Hirugarren Hezkuntzako ikasketak dituen biztanleriari dagokionez eta doktoreak diren ikertzaileen prestakuntzari dagokionez, gure hazkundera UE-28n sortutakoa baino nabarmen handiagoa izanik.
- Lehen aldiz, Euskadi UE-28ko batezbestekotik gora dago nazioarteko ikasleak erakartzeari dagokionez.
- Ekoizpen zientifikoa eta teknologikoa nabarmen hobea egin da, bai ekoizpen zientifikoari bai horien kalitateari dagokionez; izan ere, UE-28ko batezbestekotik gora hazi da.
- **Kokapen erlatibo hobea** islatzen duten adierazleak, nahiz eta aldeak txikiagotu egin diren (EUSek abiapuntu-balio hobea baina bilakaera okerragoa UE-28k baino). Prestaketa-mailarekin bat datorren enpleguaren tasari dagokionez, punta-puntako herrialde eta eskualdeetako balioen antzekoak dira Euskadikoak, baina abiapuntu-datuak kontuan izanik, Euskadiko hazkundera UE-28ko batezbestekoa baino txikiagoa izan da.
- **Kokapen erlatibo okerragoa** islatzen duten adierazleak, nahiz eta aldeak txikiagotu egin diren (EUSek abiapuntu-balio okerragoa baina bilakaera hobea UE-28k baino).

Euskadin I+G-n guztira egiten den gastuaren barnean unibertsitateek I+G-n egindako barne-gastuaren ehunekoa, adibidez, halakoa da; nolana ere, unibertsitateen ikerketa-jarduerak ZTBESko eragile guztien barnean duen ehunekoa handiagotu egin bada ere, oso garatuta dagoen sistema zientifiko/teknologiko bat egote hutsak oztopatu egiten du adierazle horrek aurrera egitea UE-28ko batezbestekorantz.

⁹ Iturria: Eusko Jaurlaritza. 2015-2018ko Unibertsitate Planaren tarteko ebaluazioa. 2015-2016.


3. taula: UE-28rekin alderatuta EUSEk duen kokapen erlatiboaren bilakaera Sistemaren adierazleetan eta Europako Batzordearen IUS Adierazleen Panelean¹⁰.

Tipologia	Adierazleak	EAEko Unibertsitate-sistema		EB-28		Egungo balioa	Bilakaera
		Egungo balioa	Bilakaera	Egungo balioa	Bilakaera		
Baliabideak	Unibertsitateek I+Gn egindako gastua BPGd-ren gainean	%0,34	%-3,0	%0,47	%0,0	2015	2013-2015
	Unibertsitateen barruko I+G gastuaren ehunekoa, I+G gastu osoari dagokionez	%18,4	%0,6	%23,2	%0,0	2015	2013-2015
Hezkuntza eta nazioartekotzea	Hirugarren mailako hezkuntza duen populazioa (25-34 urte)	%53,8	%26,3	%38,2	%10,4	2017	2013-2017
	Graduatu doktore berriak (25-34 urteko populazioaren %)	%2,2	%88,2	%1,9	%23,3	2017	2013-2017
	Goi-mailako hezkuntzan (gradua, masterra eta doktoregoa) matrikulatutako nazioarteko ikasleen ehunekoa	%6,8	%14,0	%6,7	%2,0	2016	2013-2016
Ikerketa eta transferentzia	Scopus zientzia-argitalpenen kopura milioi biztanleko	2.776	%8,9	2.009	%8,8	2016	2012-2016
	Nazioartean gehien aipatu diren zientzia-argitalpenak	%10,6	%1,3	%10,5	%-3,7	2017	2013-2017
	Scopus baterako zientzia-argitalpenen kopura milioi biztanleko	939	%105,9	494	%64,7	2017	2013-2017
	Doitutako enplegu-tasa	%83,0	%4,4	%80,2	%6,4	2017	2013-2017

2015-2018ko Unibertsitate Planak lau Helburu Estrategiko identifikatzen ditu, Sistemako unibertsitateen xedeekin bat etorrira:

- Euskal gizarteak goi-mailako hezkuntzari dagokionez dituen premiei erantzutea.
- Baliabideak garatzea eta orientatzea, nazioartean ospea izango duen bikaintasun-ikerketa egiteko.
- Euskal gizartearen erronka ekonomikoei, sozialei eta etengabeko prestakuntzako erronkei aurre egiteko zereginen gero eta protagonismo handiagoa izatea.
- Bermatzea EUSEk kalitate handiko zerbitzu-eskaintza inklusiboa izango duela, ingurumenari dagokionez baliabideak eta teknologia berriak modu jasangarri eta arduratsuan eta gardentasunez erabiliko dituela eta finantzaketa-eredu orekatu eta iraunkorra izango duela.

Oro har, Helburu Estrategikoen adierazleen % 71 jada iritsi zen, 2016an, 2018rako ezarrita zegoen xedera, eta % 8, berriz, bilakaera-eritmo egokia ari da izaten betetze-mailarantz. 2016ra arte izandako joera berberekin, Planaren gauzatzeko-mailak konprometitutako jomugen % 80 inguru gaitutuko luke 2018an.



7. irudia: 2015-2018ko Unibertsitate Planean bildutako helburu estrategikoen adierazleen betetze-maila¹¹.

¹⁰ Iturria: Geuk egina, Eusko Jaurlaritzaren, Eustat-en eta Eurostat-en datuak oinarri hartuta.

2015-2018ko Unibertsitate Planaren Tarteko Ebaluazioaren emaitzak kontuan hartuta, 2018ko urtarrilean *Euskal Unibertsitate Sistemaren egoera-diagnostiko* bat egin zen, 2019-2022 Unibertsitate Sistemaren Plana diagnostiko horretan oinarrituta egiteko. Diagnostiko horretan hauek biltzen dira: joera-ingurunearen analisiaren emaitzak, araudi-aurrerakadak, 2015-2018ko Unibertsitate Planaren tarteko emaitzak eta EUSeko unibertsitate-planen eta Euskadiko beste estrategia eta plan batzuen preskripzioak.

Diagnostiko hori egiteko, nazioarteko eta tokiko ingurunearen analisi bat egin zen lehenik eta behin, testuinguru-elementuak –araudi-aldaketak eta unibertsitate-sistemen nahiz goi-mailako hezkuntzako erakundeen esparruko joerak– identifikatuz eta berrikusiz, eta 2019-2022 USPerako esanguratsuak diren EAEko strategiak eta planak aztertuta.

Bigarrenik, EUSen premiak, erronkak eta kokapena analizatu ziren, 2015-2018ko Unibertsitate Planaren tarteko ebaluazioaren emaitzen identifikazio estrategikoan eta EUSen AMIA analisiaren eguneratzean oinarrituta.


Azkenik, oinarri estrategikoak eta programa estrategikoak identifikatu ziren eta plan berria garatzean kontuan hartu beharreko elementu kritiko estrategiko eta operatiboen ezaugarriak bildu ziren; gainera, Hezkuntza Sailean 2019-2022 USPerako lantzen diren programak deskribatu eta haien oinarri estrategikoak txertatu ziren: Bikaintasun-ikerketa, Unibertsitatea+Enpresa estrategia, Irakaskuntza-metodologia berritzaileetan oinarritutako prestakuntza, Nazioartekotzea, eta Unibertsitate-komunitatea.

Halaber, 2016-2020 aldirako XI. Legegintzaldiko Gobernu Programan bildutako zenbait konpromiso ere hartu zituen bere...

2.2 Kanpo-analisia: EAEko eta Europako politiken ildoak

2019-2022 USP egiteko erreferentzia gisa kontuan hartu beharreko funtsezko elementuetako asko laburbiltzen ditu estrategia eta politika komunitarioen egoerak, baita Euskaditik gertuen dagoenak ere.

Planaren erreferente nagusia XI. Legegintzaldiko (2016-2020) Gobernu Programaren oinarriak eta konpromisoak dira. Funtsezko lau euskarriren inguruko gobernu-programa bat da: Enplegua, berrakibatzea eta iraunkortasuna; Giza garapena, integrazio soziala, berdintasuna eta kalitateko zerbitzuak; Elkarbizitza eta giza eskubideak; eta Autogobernu gehiago eta hobea.



8. irudia: XI. Legegintzaldiko (2016-2020) Gobernu Programa.

¹¹ Iturria: 2015-2018ko Unibertsitate Planaren tarteko ebaluazioa. 2015-2016.

Zehazki, EUSen ikerketara bideratutako baliabideak % 5 handiagotzeko konpromisoa hartu du 2019-2022 USPEk bere gain

Nazio Batuen 2030 Agendak dakarren erronka unibertsala hartu du Eusko Jaurlaritzak bere gain¹². Garapen Jasangarrirako 2030 Agendak berriro ekiten die 2000-2015 aldirako ezarritako Milurtekoko Garapen Helburuei eta, halaber, gizadirako eta planetarako garrantzi kritikoa duten bost eremuetara iristen diren Garapen Jasangarrirako 17 Helburuak lortzeko konpromisoari bultzada berri bat ematen dio; izan ere, «inor atzean geratuko ez delako» xede argiarekin, hori lortuko dela segurtatzen da 2030 Agendan. 2019-2022 USPEk 2030 Agendaren garapenari egiten dion ekarpena, funtsean, garapen jasangarrirako honako sei helburu hauen bitartez sortzen da:

- Hezkuntza inklusiboa;
- Genero-berdintasuna;
- Hazkunde ekonomikoa eta enplegua;
- Azpiegiturak eta berrikuntza;
- Desparekotasuna murriztea;
- Aliantzak/garapenerako lankidetzak.

XI. Legegintzaldiko (2016-2020) Gobernu Programaren garapenean izan dezakeen eraginari dagokionez, 2019-2022 USPEk bost herri-helburu hauekin lotutako ekintzak garatzen ditu batez ere:

- < 25 urteko biztanleriaren % 75, euskal hiztuna;
- Lehenengo lau herrialdeen artean genero-berdintasunari dagokionez;
- Langabezia < % 10;
- 20.000 gazte lan-esperientziarekin;
- 100 berrikuntza-proiektu estrategiko.

Halaber, EUS zuzenean inplikatzeko duten konpromiso batzuk planteatzen dira gobernu-programan, hala nola hauek:

- **Unibertsitate-mailako oinarrizko politika zientifikoa eta ikertzailea garatu eta talentua sustatu**, bikaintasunaren bila. Unibertsitateen ikerketa-misioarekin lotutako konpromiso horri erantzuteko, ekimen jakin batzuk planteatzen dira, honako hauen ildotik: ikerketa-alarreko lanbide-karreraren euskal eredu eta ikertzaileak Unibertsitate Sistemaren eta bikaintasun-zentroetan sartzeko arau-esparrua, Ikerbasque fundazioaren lana sustatzea eta, bereziki garrantzitsua, apustu garrantzitsua dakarrelako, unibertsitateetan eta Oinarrizko Ikerketarako eta Bikaintasun-ikerketarako Zentroetan zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren garapena sustatzea, urtean % 5 areagotuta zientzia-alarreko politikara eta unibertsitate-ikerketara bideratutako baliabideak. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluak Berrikuntza Funtzari planteaturiko erronkei erantzuteko gaitasuna du EUSek, eta hori aukera ona izan daiteke baliabide-areagotze hori aprobetxatzeko.
- **Euskal unibertsitate-sistema garatzen jarraitu, emaitzetara bideratutako kudeaketaz eta inguru global berrira egokitzeko gaitasunaz, euskal gizartearen etorkizuneko erronkei erantzuteko**. Konpromiso horri erantzuteko, hainbat ekimen planteatu dira, hauekin zerikusia dutenak: 2019-2022 USPen elaborazioa; Euskal Unibertsitate Sistema sustatzeko araudi-esparru baten garapena, nazioarteko bikaintasunean aurrera egin dezan indartzeko eta haren eragin soziala babesteko; Euskal Unibertsitate Sistema gizartearekin elkarreaginean aritu dadin eta erronka sozialetarako konponbideak ekar ditzan sustatzea; eta *on-line* prestakuntza irekia indartzea.
- **Euskal Unibertsitate Sistemaren nazioartekotzearen alde egin**. Konpromiso horri erantzuteko, hainbat ekimen planteatzen dira, hauekin zerikusia dutenak: Euskal Unibertsitate Sistemarekin lotutako Nazioarteko Bikaintasun Campusak indartzea; euskal unibertsitateetako eta bikaintasun-ikerketarako zentroetako ikasle eta irakasleen nazioarteko mugikortasuna faboratzea; irakaskuntza-ereduak eta prestakuntzaren kalitatea ebaluatzeko eta egiaztatzeko ereduak –nazioarteko

¹² XI. Legegintzaldiko (2016-2020) Gobernu Programa lerrokatuta dago Giza Garapen Jasangarrirako Nazio Batuen Estrategiarekin, hauen bitartez: 15 herri-helburu, 15 plan estrategiko, 54 plan sektorial, 28 legegintzako ekimen, 175 konpromiso, 650 ekimen eta 100 adierazle.

testuinguruan ere lankidetzatza gehiago ahalbidetuko dutenak— sustatzea; eta nazioarteko lankidetzatza eta laguntza, batetik, EUSeko unibertsitateen artean, eta bestetik, EUSeko unibertsitateen eta ZTBES Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko gainerako eragileen artean. Nazioartekotze-esparruan, Basque Country Estrategia funtsezko erreferentzia da planteaturiko ekintzetarako.

- **Beken politika indartu ikertzaileen karreran.** Konpromiso horri erantzuteko, hainbat ekimen planteatzen dira, unibertsitate-prestakuntzan eta ikertzaileen karreran ikasketa-beka eta -laguntzetarako programen alde apustu egiten jarraitzearekin zerikusia dutenak.
- **Unibertsitate-enpresako programak sustatu.** Konpromiso horri erantzuteko, hainbat ekimen planteatu dira, hauekin zerikusia dutenak, besteak beste: unibertsitateko prestakuntza duala; enpresa eta unibertsitatearen arteko gelak martxan jartzea; Euskadi 2020 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planarekin lerrotatutako prestakuntza- eta ezagutza-klusterrak sustatzea eta sortzea; EUSeko unibertsitateek Euskadiko administrazio publikoekin, enprekin eta bestelako eragile ekonomiko eta sozialekin dituzten erlazioak indartzea, prestakuntzaren eta ezagutzaren transferentziaren inguruan; eta tituludunen kolektiboan lan-merkatuan sar dadin sustatzea. Konpromiso horrekin lerrotatuta, 2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoan, 2017-2020 Industrializazio Planean eta 2020 Ekintzaitza Planean bildutako zenbait lehentasun eta jomuga bere gain hartzen ditu 2019-2022 USPek. Halaber, Zientzia, 2019-2022 USP honen indarraldiaren erdialdean Teknologia eta Berrikuntzaren Plan berria sortuko da, eta kontuan izanik oso garrantzitsua izango dela eta Plan berri horrekin lerrotatuta egon beharko duela Plan honek, eguneratu egin beharko da Plan hau amaitu baino lehen, I+G+b-ren sustapenean eta, bereziki RIS3 apustuetan sortuko diren nobedadeak biltze aldera.

2020an euskal politikak eta politika komunitarioak aldatu egingo direnez, 2019-2022 USP bere indarraldiaren erdira iristean eguneratzeko aukera kontuan hartu behar da

XI. Legegintzaldiko (2016-2020) Gobernu Programan aipatzen den 2019-2022 USP hau sortu baino lehen, Eusko Jaurlaritzak jada abiarazi ditu hainbat jarduketa, hura diseinatzean kontuan hartu beharrekoak, ekin nahi zaien erronkekin eta lehentasunekin lerrotatuta egoteaz gain, denbora-tarte horretan sustatu beharreko ekimenen abiapuntu-oinarria ere badirelako.

Hori horrela izanik, 2019-2022 USP bi erreferenteren existentzian oinarrituta eratzen da: batetik, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana Euskadi 2020; bestetik, Unibertsitate eta Enpresaren arteko 2022rako Estrategia.

ZTBPK sei helburu operatibo garatzen ditu, eta 2019-2022 USPek ekarpen hauek egiten dizkio modu esanguratsuan: oinarritzko ikerketa eta garapen teknologikoa edo esperimentalak sustatzea; Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Sistema emaitzak lortzera bideratzea; I+G+b-ko nazioarteko funts gehiago erakartzea; eta ikertzaileen trebakuntza hobetzea.

Bestalde, Unibertsitate eta Enpresaren arteko 2022rako Estrategiak bi helburu ditu: batetik, unibertsitate-tituludunen enplegarritasuna sustatzea eta faboratzea; bestetik, ezagutza enpresetara eta euskal gizarte osora (oro har) transferitzea, herriaren erronka ekonomiko eta sozialei aurre egiteko.

Estrategia horrek jada baditu ekimenak eta emaitzak, hala nola titulazio dualen euskal eredia sustatzea; prestakuntza-kluster bat sortzea; edo enpresen eta unibertsitateen arteko lehen AIC gela abiaraztea. Nabarmenezkoa da ekimen horiek Europako Batzordearen aintzatespena lortu dutela interes-erreferentzia gisa eta, gainera, horietan sakondu nahi dela, 2019-2022 USPen planteaturiko ekimen osagarrien bitartez.

Halaber, Hezkuntza Sailak, legegintza-esparruan, bultzada esanguratsua eman dio unibertsitate-esparruaren eta lanbide-heziketaren esparruaren arteko koordinazioari. Bi lege-testu hauek dira legegintza-esparruko bultzada horren araudi adierazgarrienak; batetik, ekainaren 28ko 4/2018 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-heziketari buruzkoa; bestetik, abenduaren 19ko 274/2017 Dekretua, gradu, master eta doktorego tituluak lortzeko egin behar diren unibertsitate-ikasketa ofizialak ezartzeari eta kentzeari buruzkoa.

2019-2022 USP egin baino lehen, plan horretan eragina duten elementuak garatu izan ditu jada Jaurlaritzak, hala nola Unibertsitate eta Enpresaren arteko 2022rako Estrategia

GHEEk eta EIEk funtsezko bi erreferentzia izaten jarraituko dute, eta EUSek horietan duen kokapena hobetzen jarraitu behar du

Arau horien garapenean aurrera egiteko, Unibertsitatea+LH esparruari dagokionez, Euskadiko unibertsitateen eta lanbide-heziketako zentroen arteko lankidetzak sustatzen duten hainbat ekintza itundu dira 2019-2022 USPen barnean.

Hori horrela izanik, 2019-2022 USPeK zehatz eta argi biltzen ditu Unibertsitatea+LH lankidetzak sustatzen duten ekintzak. Unibertsitate eta Enpresaren arteko 2022rako Estrategia erreferente izan da Unibertsitatea+Enpresa Ardatzean unibertsitateek garatu beharreko ekintzak zehazteko, eta 5. ekintzan identifikatuta dauka unibertsitate-graduetan unibertsitateak eta lanbide-heziketako ikastetxeak lankidetzan aritzeko euskal esparrua zehaztea. Izan ere, 2019-2022 USPen funtsezko elementutzat hartzen da lanbide-heziketarekiko lankidetzak, eta horregatik, halako lankidetzak sustatzeko ekintzak finkatu eta itundu dituzte unibertsitate guztiek.

EUSen eragin zuzena duten plan horien osagarri gisa, bestelako gobernu-plan batzuk ere badaude, eta 2019-2022 USPeK bere gain hartzen ditu plan horietan bildutako hainbat ildo eta jomuga, Sistemako eta haren erakundeetako jardura gauzatzean aplikatze eta kontuan hartze aldera. Horren adibide dira, kasu baterako, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VII. Plana 2018-2021 eta Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020; izan ere, Planean kontuan hartzen dira bi horiek, eta ekintza espezifikoak – unibertsitate-komunitateko kolektibo guztiak eraginpean hartzen dituztenak – hartzen ditu barnean Planak bi esparru horietan, baita Planaren bilakaera ikuskatzeko jarraipen-adierazleak eta -jomuga ere.

EBren politikei dagokionez, Europa 2020 Estrategiak¹³ eta politika horiek zabaltzeko balio duten ekimen adierazgarriek euren ildo orokorreari jarraitzen dizkiete 2020ra –2019-2022 USPen erdira– begira; izan ere, 2020a urte erabakigarria da EUSen plangintzaren erreferentzia nagusietako bi –Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua (GHEE) eta Europako Ikerketa Esparrua (EIE)– gidatu behar dituen esparru estrategiko eta operatiboa eguneratzeari dagokionez; gauza bera gertatzen da Euskadin Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plan (2020) berriarekin, EUSen prestakuntza, ikerketa eta transferentziako jardura lerrotzeko erabakigarria den plan horrekin.

Horren haritik, Europa 2020 Estrategian bildutako helburu nagusi hauek lortzen lagunduko duten unibertsitateekin itundutako ekintzak barne hartzen ditu Plan honek:

- 20-64 urteko pertsonentzat, % 75eko enplegu-tasa lortzea gutxienez;
- Barne-produktu gordinaren % 3 ikerketan eta garapenean inbertitzea;
- Eskola-uztearen tasa jaistea, % 10etik beherakoa izan arte, eta goi-mailako irakaskuntzan titulazioa duten pertsonen tasa igotzea, gutxienez, % 40raino;
- Pobrezia-atalasetik behera bizi diren edo gizarte-bazterkeria pairatzeko arriskuan dauden pertsonen kopurua murriztea, gehienez 20 milioi izan arte.

Halaber, komeni da hau nabarmentzea: azken urteotan lortutako aurrerakadak kontuan izanik, aurreraketa da indarrean jarraituko duten hainbat elementu finkatu egingo direla:

- Batetik, aurreikus daiteke **GHEE integratuago egongo dela**, ikasle, irakasle eta irakasleen arteko mugikortasuna handiagoa izango dela, Goi-mailako Hezkuntzako Erakundeen (GHE) artean interrelazio gehiago egongo direla eta testuinguru horretan kokapen ona eta rol esanguratsua lortzen saiatuko diren bikaintasun-erakundeen sareak agertuko direla.
- Bestalde, **EIEen espezializazio adimentsurako estrategiek rol erabakigarria izaten jarraituko dute**, batetik, ikerketaren eta garapen teknologikoaren alorrean lehentasunak aukeratzeko prozesuan eta, bestetik, inguruan ezagutza sortzea eta emaitzak ustiatzea ahalbidetuko duten baliabideen politikak zehazteko eta halako baliabideak diseinatzeko zereginean.

Hori guztia, estrategien eta planen jarraipenak eta ebaluazioak garrantzi handia duten testuinguru batean; horregatik, estrategiak eta planak behar bezala kudeatu behar dira

¹³ Europa 2020 Estrategiak ahalbidetu egin behar dio EBri hazkuntza adimentsua izaten, ezagutzak eta berrikuntza garatuta; halaber, garapen horrek jasangarria eta integratzailea izan behar du, berdeagoa eta lehiakorragoa izango den eta baliabideak eraginkortasun handiagoz kudeatuko dituen ekonomia batean oinarrituta egoteaz eta enplegua eta gizarte- eta lurralde-kohesioa indartzeko helburua izateaz gain.

eta, halaber, inbertitutako baliabide publikoei gehiago eskatu behar zaie, kontu-emateari eta gardentasunari dagokienez.

2.3 AMIA eta erronken identifikazioa

Euskadiko Goi-mailako Hezkuntzak azken hamar urteotan izan duen bilakaerari erreparatuta, ikusten dugu Euskadiko Unibertsitate Sistemak indar hauek dituela:

- Eredu eta espezializazio desberdinak dituzten eta lurralde osoan dauden unibertsitateez osatutako osaera mistoa du.
- Aurrerakada izan du hizkuntza-normalizazioan eta hizkuntza ez-ofizialen eskaintzaren hazkunderan.
- Instalazio eta azpiegitura onak ditu.
- Tasa altuak errendimenduan, arrakastan eta ebaluazioan eta prestaketa-mailarekin bat datorren enpleguaren maila handia.
- Doktoreak eta bikaintasun-ikerketarako talde ugari sortzeko gaitasun egokia.

Halaber, EUSen funtzionamenduak ahuleziak ere badituela identifikatu da:

- Ingurunearekiko eta gizartearekiko konexioa hobetu egin daiteke.
- Nazioarteko agerikotasun mugatua du eta *ranking*etan lidergo-kokapenetatik urrun dago.
- Eskaintza mugatua titulazio bikoitzetan eta baterakoetan.
- Hizkuntza ez-ofizialekin eskaintutako kredituen eta nazioarteko ikasleen ehunekoa txikia da oraindik.
- Transferentzia-gaitasuna hobetu egin daiteke, eta emakumeak azpiordezkaturik daude erantzukizun handiko karguetan eta estatus akademiko altuko lanpostuetan.

EUS parametro guztietan hobetu da, indar eta ahulezia erlatiboak finkatu ditu, eta GHEek prestakuntza-alorrean mahaigaineratzen zituen erronkei eraginkortasunez erantzuteko gai izan da. Beste erronka batzuk geratzen zaizkio oraindik, ikerketari eta transferentziari dagokienez, hori guztia, Sistema osatzen duten hiru unibertsitateetako bakoitzak bere diagnostikoa duela.

Nabarmentzekoa da ekimen batzuek oso eragin positiboa izan dutela, baita ahulezietan ere, horiek okerragotzea eragotzita. Ikerbasqueren bitartez nazioarteko ikertzaileak erakartzeari dagokionez, RIS3 apustuen bitartez ezagutza-erakarguneak sortu dira eta enprekin erlazioak estutzeko ekimen pilotuak abiarazi dira, besteak beste. Logikoa den bezala, 2019-2022 USPen ezarri beharko litzateke ekimen horiei guztiei eutsi egin behar zaiela, dagozkien egokitzapenak txertatuta.

Testuinguru horretan, agerikoa da arreta egitura-elementu batzuetan ipini behar dela, ez soilik multzoari jarraipena eta ebaluazioa egitea; horren adibide dira, zehazki, baliabide publiko batzuk, Eusko Jaurlaritzak horien gaineko erabakiak hartzeko erabateko eskumena badu.

Heterogeneoak diren eta luzaroan dirauten indarrak erakultzen dituzten, EUSen ditzuten jakin unibertsitateen berruntz dago. EUS, egitura-desoreketako zenbaitzuk konpondu nahi badira

Ahuleziak

EAEko Unibertsitate-sistemaren osaera, ingurua eta gizartea

- Tokiko, estatuko eta nazioarteko eragileekiko lotura mugatuak
- Nazioarteko presentzia eta ikusgarritasun mugatua
- EAEko Unibertsitate-sistemako eragileak ez egotea rankingeko lidergo-postuetan
- Unibertsitate-erkidegoa ez da lar sentitzen erakundeetako parte

Trebakuntza

- Titulazio bikoitzen eta baterakoan eskaintza mugatua
- Asko dira gradu- zein master-ikasketak bertan behera uzten dutenak
- Ofizialak ez diren hizkuntzetan eskaintako kreditu-ehuneko mugatua
- Master-ikasketetako nazioarteko ikasleen ehuneko mugatua

Ikerkuntza

- Estatuko baliabide gutxiago erabiltzen dira I+G-rako
- Alor batzuen ikerlanak isla txikia dauka nazioartean
- Irakasle eta ikertzaileen zahartzea eta belaunaldien txandaketari aurre egiteko arazoak

Transferentzia

- Azaldutako adierazleek hobera egin duten arren, transferentzia eskasa enpresa-sektorerantz

Unibertsitate-gobernantza eta -kudeaketa

- Unibertsitate-kolektiboen pertsonen inplikazio eskasa dute unibertsitateko gobernantzan
- Emakumeek ordezkaritza eskasa daukate ardura-karguetan eta estatus akademiko handiagoko lekuetan
- Berandu ezartzen ari da e-administrazioa

EAEko Unibertsitate-sistemaren osaera, ingurua eta gizartea

- EAEko Unibertsitate-sistemaren osaera plurala (izaera eta espezializazio desberdinetako unibertsitateak)
- Presentzia lurralde osoan
- Aurrekontu/gastu handia ikasleko
- Azpiegiturak eta instalazio lehiakorak
- Euskarako hizkuntza-eskakizun egiaztatutak dituzten irakasle eta ikertzaileen eta administrazio eta zerbitzuetao langileen kopurua handia da
- Ofizialak ez diren hizkuntzak egiaztatuta dauzkaten irakasle eta ikertzaileen ehunekoak haztea
- Administrazio eta zerbitzuetao langileen prestakuntza akademikoa biziki hobetu da
- Ofizialak ez diren hizkuntzen prestakuntza biziki hobetu da ikasleen artean

Trebakuntza

- Populazioaren hezkuntza-maila handia
- Hizkuntza ofizialen prestakuntza-eskaintza handia eta iraunkorra, zeinak eskariko zatirik handiena estaltzen baitu
- Esperientzia kontrastatua hizkuntza ofizial bietako prestakuntza-eskaintzan
- Itzulitako enplegu doitu handia
- Graduak eta masterreko ikasketen errendimendu, arrakasta eta ebaluazio on-ona

Ikerkuntza

- Doktoareak sortzeko gaitasun handia
- Bikaintasunerako ikerketa-taldeen kopuru handia

Transferentzia

- Hobera egin du, baina ibilbide luzea dauka enpresa-sarerako transferentzia-adierazleetan

Indarguneak

Mehatxuak

EAEko Unibertsitate-sistemaren osaera, ingurua eta gizartea

- Bilakaera demografikoa, unibertsitate-ikasketa gutxiago eskatzen dira
- Irakasle eta ikertzaileen zahartzea eta belaunaldien txandaketari aurre egiteko plangintzarik eza
- Bokazio zientifiko eta teknologiko eskasak, batez ere emakumeen artean
- Lege- eta finantza-esparru zorrotzak murriztutako langile-politika
- Ekonomia-, gizarte- eta genero-arrazoiengatikoa desberdintasunak handitzen dira edo egungoei eusten zaie

Trebakuntza

- Ikasleak beste unibertsitate-sistema batzuetara bideratzea
- Formala ez den ikaste-eskaria handitzea
- Joera berrien inguruko erakunde-estrategiarik eza
- Estatuko eta nazioarteko unibertsitateek on line eta ingeleseko gradu eta graduondoen eskaintza izatea
- On line prestakuntzaren eta prestakuntza jarraituaren erakunde-estrategiarik eza

Ikerkuntza

- Estatuan ikerkuntzara bideratutako baliabideak murriztea
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileekiko lankidetzak eskasa proiektu handiei aurre egiteko garaian
- Zientzia-munduan parte hartzea oztapatzen duten egitura-mugak

Transferentzia

- Ingurunean bultzatzen ari diren ekimenak bakartzea
- EAEko Unibertsitate-sistemak protagonismo eskasa dauka EAEko Berrikuntza-sisteman

EAEko Unibertsitate-sistemaren osaera, ingurua eta gizartea

- Espezializazio-estrategia adimentsua (RIS3)
- Lanbide-heziketako erakundeekiko harremanak ezartzeko aukera
- Tokiko eta nazioarteko sareetan kolaboratzeko eta parte hartzeko hitzarmenak garatzea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileekiko lankidetzan

Trebakuntza

- Metodo eta metodologia aktiboekin trebatzeko beharrian gero eta handiagoa
- Ofizialak ez diren hizkuntzen inguruko eskaria handitzea
- Prestakuntza dualaren aldeko bultzada sendotzea
- Nazioarteko orientazioa duten titulazioak bultzatzea

Ikerkuntza

- Lurraldean zientzia- eta teknologia-eragileen mota anitz (ZTBES)
- Lurraldean enpresa eraberrizaille asko
- Enpresa-sareak berrikuntzak ezarri behar ditu

Transferentzia

- Unibertsitatearen eta enpresaren arteko lotura bultzatzea
- Ekintzailatza-programak enpresak sortzeko programak martxan jartzea
- Ikasle ohiek unibertsitatearekin lotura izatea eta ikasleen sarea aprobexatzea enpresa eta gizartearen arteko harremanak optimizatzeko
- Erabiltzaile eta bezeroen inplikazioa ikerkuntzaren orientazioa eta transferentzia-potentziala errazteko
- Emaitzen ustiapena aldeztu duten eta finantzabideak hazten duten transferentzia-erduak eta -egiturak bultzatzea

Unibertsitate-gobernantza eta -kudeaketa

- Unibertsitateen plangintza hobetzea euren helburuetan

Aukerak

9. irudia: Euskal Unibertsitate Sistemaren Ahulezien, Mehatxuen, Indarren eta Aukeren Analisia (EUSen AMIA).

Mehatxuei eta aukerei gagozkiela, planteatzen den jokalekua funtsezko bi ezaugarriren bidez deskriba daiteke: ziurgabetasunik ez du eragiten eta ilusioa sortzen du.

- **Ziurgabetasunik ez du eragiten** EUSen mehatxuei dagokionez. Denbora igaro ahala, agerian geratu dira zenbait mehatxu: lehenik eta behin, irakasleak eta ikertzaileak zahartzen ari dira eta horien ordezkioak aurkitzea ez da arraza; bigarrenik, euskal gizarteak eredu demografiko jakin bat du; eta hirugarrenik, isolamenduak trabak jartzen dizkio mundu zientifikoari proiektuetan parte hartzeko beste eragile batzuekin lankidetzan; baina mehatxu horien eragina erraz aurreikus daitekeenez eta oso alternatiba jakinak daudenez, haien ondorenak arintzeko estrategien diseinua atzeratzeko arrazoirik ez dago.
- **Ilusioa sortzen du** aukera handiak identifikatzen direlako, unibertsitateak garatzen ari diren estrategia eta ekintzekin ez ezik, herriaren premiekin eta lehentasunekin ere bat datozen aukerak, hain zuzen. Honako hauek oso aukera ona dira EUSen kokapena hobetzeko: enplegarritasunera bideratutako prestakuntza; unibertsitate-irakaskuntzaren eta lanbide-heziketaren arteko erlazioa; RIS3 apustuen bidez bikaintasun-erakarguneak sortzea; eta Unibertsitatea+Enpresa erlazioak. Halaber, aukera horietan aurrera egiteko aurretiko jarrera dago eta ingurune-kondizioak faboragarriak dira.

Mehatxuak argiak dira, eta horiei erantzuteko ekintzak herriaren premiekin eta lehentasunekin lerrokatuta daude

Horrek ez du inolaz ere esan nahi garatu beharreko ekintzak arrazak izango direnik. Honako hauek planteatzen dira: lehenik eta behin, gauza segurua da mehatxu eta aukera horiek efektuak eragin ditzaketela; bigarrenik, herriaren premiekin eta interesekin bat datozen aukerak esploratzeko sinergiak daude; eta azkenik, Eusko Jaurlaritzak eta EUS osatzen duten unibertsitateek goi-mailako plangintza estrategikoa egin behar dute horren guztiaren ondorioz.

Egoera horri erreparatuta, 2019-2022 USP abiarazteko identifikatu diren erronkak bi mailatan sailkatu daitezke: maila estrategikoan eta maila operatiboan; izan ere, horien arabera diseinatu da 2019-2022 USP.

Maila estrategikoari dagokionez, EUSen eragile guztiak aurrera egiten jarraitu behar dute. Horrenbestez:

- Eusko Jaurlaritzaren erantzukizuna da **baliabideen inbertsioa lehenestea** herriko premiei hobeki erantzutea ahalbidetzen duten elementuen gainean.
- EUSeko unibertsitateek erantzukizuna eta beharra dute kontuan hartzeko **plangintza estrategikoa, inguruneko erronketara egokitzeko etengabeko ariketa gisa**.

Maila operatiboan, eta maila estrategikoan identifikatu diren erronkekin oso lotuta, 2019-2022 USPen aurreikusten diren ekintzak abiaraztea ahalbidetzen duten baliabide eta gunez hornitu behar du EUSek, baita haren indarraldian ager daitezkeen ingurune-kondizio berriei erantzuteko ekintzak abiaraztea ahalbidetzen dutenez ere. Honako baldintza hauekin:

- Eusko Jaurlaritzak 2019-2022 USPe eskatzen dituen jarduketak orientatzeko, kudeatzeko eta gauzatzeko **tresnez eta baliabideez hornitu** behar du.
- Horretaz gain, administrazio-kontrolaz haratago joango diren eta unibertsitateekin hausnarketa estrategikoan aritzeko topagune bihurtuko diren **elkarrizketaguneak antolatze**ko erantzukizuna ere badu Eusko Jaurlaritzak.
- EUSeko unibertsitateek gune horiek aprobetxatzeko erronka dute, Eusko Jaurlaritzarekin euren **ikuspegi estrategikoa eztabaidatzeko** eta praktikan gara daitezkeen jarduketak proposatzeko eta gomendatzeko.

Estrategia aurreratuek gaitasun eta baliabide aurreratuak eskatzen dituzte

3 2019-2022 USPen oinarri estrategikoak eta garapen-ardatzak

2019-2022 USP honako hiru elementu hauetan oinarrituta dago: lehenik, oinarri estrategikoak, Planaren diseinurako ildoak finkatzen dituztenak; bigarrenik, garapen-ardatzak, esku hartzeko esparruak identifikatzen dituztenak; eta azkenik, etorkizunerako ikuspegi bat, EUSEk noranzko bilakaera izan behar duen bideratzeko, Planaren indarraldian, dituen erronkak lortze aldera.



10. irudia: 2019-2022 USPen oinarrizko estrategia.

Esku-hartze esparruak, martxan jarri beharreko ekintzak eta Planaren indarraldian ekintza horiek abiarazteko modua antolatzen dituzte garapen-ardatzek, nola Eusko Jaurlaritzaren ikuspegitik hala EUSEko unibertsitateei dagokienez.

2019-2022 USPen oinarria osatzen duen plangintza- eta kudeaketa-filosofia finkatzen dute oinarri estrategikoek; hots, Planean ezarritako esku-hartzeen logika da, EUSen erronkei erantzuteko, bikaintasunerantz aurrera egiteko eta herri-helburuetan ahalik eta gehien laguntzeko.

EUSen 2022rako ikuspegiak Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten erakunde guztien bilakaera-lerroak markatzen ditu, erlazioei dagokienez: horien barne-erlazioak; eragile bakoitzak Euskal Berrikuntzaren Sistemako gainerako eragileen arteko erlazioak; eta eragile guztien arteko erlazioak, mugaz gaindiko lankidetzari eta nazioarteko proiektioari dagokienez.

3.1 Planaren oinarri estrategikoak

2019-2022 Unibertsitate Sistemaren Planak hainbat oinarri estrategiko ditu, sustatu nahi diren ekimenak ez ezik, horietako bakoitzean konprometitu beharreko ahalegina ere orientatzeko eta ulertzeko:

1. **Plan estrategikoa da**, Eusko Jaurlaritza osoarena. Hezkuntza Sailak zuzendua, 2019-2022 USPen garapenean Sail batek baino gehiagok hartzen dute parte. Besteak beste, Eusko Jaurlaritzak Euskal Unibertsitate Sistema garatzeko ezinbestekotzat jotzen dituen elementuen aldeko apustua egiten du Planak, batetik, herriaren premiei erantzuteko eta, bestetik, EUS nazioarteko unibertsitate-sistema aurreratuenen abangoardian kokatzeko.
2. **Sistema-plana da**, EUS osoarena. 2019-2022 USPeK proposatzen dituen ekimenen helburua ez da unibertsitate jakin bakar batean eragina izatea, EUS osatzen duten guztietan baizik, Sistemaren ikuspegi batetik. Unibertsitate bakoitzaren kokapena

garrantzitsua da Eusko Jaurlaritzarentzat, EUSen gaitasuna hobetzeko garrantzitsua delako, herriari zerbitzua emateko duen zeregina kontuan izanik.

3. **Plan integrala da**, EUSen elementu guztiei erreparatzen diena. 2019-2022 USPek bost garapen-ardatz identifikatzen ditu, eta Goi-mailako Hezkuntzako Erakundeekin lotuta planteatu daitezkeen esparru guztiak barne hartzen dituzte haien orientazioak eta irismenak: Bikaintasun-ikerketa, Unibertsitatea+Enpresa, Irakaskuntza-metodologia eta -eredu berritzaileetan prestatzea, Nazioartekotzea, eta Unibertsitate-komunitatea. Horregatik, legean ezarrita dagoen bezala, 2019-2022 USP da erreferentzia-baliabidea EUSen plangintza estrategikorako.
4. **Egitura-aldaketarako plan bat da** eta, horregatik, Bikaintasun-ikerketa Ardatza eta Unibertsitatea+Enpresa Ardatza lehenesten ditu, EUSen erronken artean denborarekin finkatu direnei heltzeko. Orain arte garatu diren unibertsitate-planen ebaluazioaren bitartez, parametro gehienetan izandako hobekuntzak identifikatzeaz gain, EUSen ahulezia iraunkor batzuk ere seinatzen ditu, hobekuntza nabarmena izateko ahalegin handiagoa eskatzen dutela zehaztuta. Bikaintasun-ikerketa Ardatzarekin eta Unibertsitatea+Enpresa Ardatzarekin –2019-2022 USPen diseinuan, garapenean eta espero den abiaraztean lehenetsunezkoak diren bi ardatzekin– lotutako elementuen kasua da, esate baterako. Nolanahi ere, EUS osatzen duten unibertsitateetako bakoitzak bere ezaugarri eta espezializazio propioak dituela ere kontuan hartzen du.
5. **Egokitzen den plana da**, ez baita hartzen jarraitu eta 2022a amaitzean ebaluatu beharreko lau urterako estrategiatzat. Urtero ebaluatzen eta egokitzen den plangintza estrategikoko gisa planteatzen da Plan hau, testuinguru-aldaketei eta Plan hau abiaraztearen ondorenei erantzuteko. 2020a aurreratzen du eguneratze-epemuga gisa, zenbait elementu kontuan hartzeari dagokionez, hala nola Titulazioen Mapa indarrean hastea, Irakaskuntza-metodologia berritzaileetan oinarritutako prestakuntza Garapen-ardatzeko funtsezko jarduketara gisa; eta Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plan berria, RIS3-ko apustuatarako aurreikusitako eguneratzea eta horren ondoriozko inpaktua barnean hartuta, Bikaintasun-ikerketa Ardatzean eta Unibertsitatea+Enpresa Ardatzean.
6. **Gehitzen duen plana da**, unibertsitate bakoitzaren planak barne hartzen baititu garapen-ardatz bakoitzean. 2019-2022 USPen garapen-lehenetsun batzuk planteatzen dira, baita EUSeko unibertsitateek derrigorrean ekin beharreko sustapen-elementu batzuk ere. Eusko Jaurlaritzak identifikatutako derrigorrezko elementu horiei erantzuteko planteaturiko ekimenak identifikatzen dituzte, bestalde, unibertsitateek, eta planaren indarraldian ekimen horiek gauzatzeko konpromisoa hartzen dute. Planteamendu horrek ez die unibertsitateei galarazten, edozelan ere, egokitzat jotako beste edozein apustu egitea, norik bere autonomia baliatuta.
7. **Gobernantza-organo bizkorren aldeko apustua**, sustatu beharreko ekimen berriak analizatzea, horien hausnarketa estrategikoa egitea eta horiek proposatzea fabora dezaten. 2019-2022 USPen, Jarraipen Batzordeek garrantzi eta protagonismo handiagoa hartzen dute; izan ere, administrazio-kontrol hutsaz bestelako zereginak hartzen dituzte eta Eusko Jaurlaritzaren eta EUSeko unibertsitateen arteko eztabaida estrategikorako toki bihurtzen dira. Batzorde horietan, bi zeregin dituzte unibertsitateek: batetik, garapen-ardatz bakoitzean hitzemandako planetan aurreikusitako ekimenak nola abiarazi dituzten azaldu behar dute urtero; bestetik, euren emaitzak aurkeztu eta azaldu behar dituzte.
8. **Ahalegin partekatua planteatzen du**, EUSeko unibertsitateek eta Eusko Jaurlaritzak elkarrekin mobilizatzen baitituzte baliabide publiko eta pribatuak. 2019-2022 USPek, haren aurrekoek ez bezala, identifikatu egiten du zer baliabide hitzeman dituzten EUSeko unibertsitateek planaren garapen-ardatz bakoitzean inbertitzeko. Horrela, eragile bakoitzak zenbateko ahalegin partekatua egingo duen ikusten da; batetik, unibertsitateek euren baliabide propioen bitartez eta kanpo-finantzaketarako iturriak bilatuta; bestetik, Eusko Jaurlaritzak, Sistema osorako

ekintzak eta unibertsitateekin aldeztutako beste ekintza espezifiko batzuk garatzen lagunduta¹⁴.

9. Eusko Jaurlaritzak EUSen egin duen **inbertsioa finkatzen du**; halaber, areagotze espezifikoak eragiten ditu ikerketaren eta transferentziaren esparruetan eta, horretaz gain, hazkunde ekonomikoko egoera batean sor litezkeen baliabide gehigarriak ere mobilizatzen ditu. 2019-2022 USPen indarraldian planteatzen den finantza-jokalekuan ezinbestekoak izango dira, batetik, Eusko Jaurlaritzaren baliabideei eustea, eta bestetik, administrazio publikoetarako agintzen diren gastu-bilakaerako ildoak zorrotz betetzea. Halaber, Eusko Jaurlaritzak bere XI. Legegintzaldiko (2016-2020) Gobernu Programan harturiko konpromisoarekiko koherentziari eutsiz, 2019-2022 USPeke ikerketa-aurrekontuen % 5 areagotzea planteatzen du. Halaber, Eusko Jaurlaritzak baliabide gehigarriak mobilizatzeko konpromisoa hartzen du bere gain, betiere, eskuragarritasunaren eta egoera ekonomikoaren arabera.
10. **Aginte Taula sendo eta sinplifikatu batez hornitzen da**, arreta EUSen elementu estrategikoen jarraipenean eta ebaluazioan ipintzen duten adierazle eta jomugekin, eta bereziki, Eusko Jaurlaritzaren beste estrategia eta plan batzuetan finkatutako adierazle eta jomugekin. 2019-2022 USPeke haren aurrekoek baino adierazle eta jomuga gutxiago planteatzen ditu; bestalde, unibertsitate-*ranking* nagusietatik aukeratu dira adierazleak, eta zehatz-mehatz finkatuta daude, modu zorrotz eta homogeenan zenbatu ditzaten unibertsitateek. Halaber, EUS eraginpean hartzen duten beste gobernu-estrategia eta -plan batzuetan jasotako adierazleak eta jomugak ere barne hartzen ditu, zenbait kasutan, EUS adierazle eta jomuga horietan aurrera egiteko eragile garrantzitsuak direlako (enplegarritasuna, nazioartekotzea, ekintzailtza, etab.), eta beste batzuetan, adierazle eta jomuga horiek erdiesteko kontuan hartu beharreko erreferentziak direlako (genero-berdintasuna, euskara, eta abar).

1	2019-2022ko Unibertsitate-sistemaren Plana Jaurlaritzaren plana da	2019-2022ko Unibertsitate-sistemaren Plana Eusko Jaurlaritzan egiten den estrategia-plangintzarekin batera, unibertsitate bakoitzeko planak ezartzen ditu garapen-ardatz bakoitzean	6
2	2019-2022ko Unibertsitate-sistemaren Plana sistemaren, EAEko Unibertsitate-sistema osoaren, plana da	2019-2022ko Unibertsitate-sistemaren Plana gobernantza-organo arinen alde egiten du, azterketa, estrategia-hausnarketa eta bultzatu beharreko ekimen berrien proposamena aldezteko	7
3	2019-2022ko Unibertsitate-sistemaren Plana EAEko Unibertsitate-sistemako osagai guztiak kontuan hartzen dituen plan integrala da	2019-2022ko Unibertsitate-sistemaren Planaren helburua baliabide publikoak eta pribatuak mobilizatzea da EAEko Unibertsitate-sistemaren unibertsitateen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko ahalegin konpartituarri esker	8
4	2019-2022ko Unibertsitate-sistemaren Plana egitura-aldaketako plana da, horretarako, bikaintasuna ikertzeko ardatza eta unibertsitate-enpresa ardatza lehenesten ditu	2019-2022ko Unibertsitate-sistemaren Plana 2019-2022ko Unibertsitate-sistemaren inbertsio iraunkorra eusten dio, ikerkuntzarako eta transferentziarako igoera espezifikoekin eta hazkunde ekonomikoan gerta daitezkeen baliabide gehigarriak mobilizatuz	9
5	2019-2022ko Unibertsitate-sistemaren Plana egokitzen den estrategia-plangintza da, etengabe implementatzen da eta 2020an erreferente zehatzak ditu gaurkotzeko	2019-2022ko Unibertsitate-sistemaren Plana 2019-2022ko Unibertsitate-sistemaren Plana adierazleak eta helburu dituen aginte-koadro sinplifikatuak dauka, 2019-2022ko Unibertsitate-sistemaren osagai estrategikoen jarraipena eta ebaluazioa egiteko; era berean, koadro horrek Jaurlaritzaren bestelako estrategiek eta planek definitutako adierazleak eta helburuak ditu definitutako adierazleak eta helburuak ditu	10

11. irudia: 2019-2022 USPen dekalogo estrategikoa.

¹⁴ Finantzaketa-ahalegina modu desberdinean egon daiteke banatuta alderdien artean: egin beharreko ekintzek duten interesaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa handiagoa edo txikiagoa izan daiteke.

3.2 Garapen-ardatzak zehaztea eta antolatzea

Guztira, bost ardatz: Jaurlaritzaren planekin eta unibertsitateen planekin

2019-2022 Unibertsitate Sistemaren Plana bost garapen-ardatzen arabera planteatzen da, eta ardatz horiek funtsezkoak dira, EUS sendotzeko zereginen eta bikaintasun aurrera egiteko. Bi helburu horiek izaera desberdinari erantzuna ematen dioten jardueren bidez gorpuzten dira (10. atala ikusi).

Alde batetik, sistema publikoari laguntza emateko oinarriko jarduerak sartzen ditu planak eta jarduera horiek eragin zuzena dute oro har aipatutako ardatzak aurrera eramateko prozesuan; ohiko ekarpena, irizpide objektiboen arabera eta nahikotasun printzipioari kasu eginez EHUri emateko ezartzen den hornikuntza bat dena, eta Hainbat Urtetako Inbertsioen Plana, Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 legean jasota geratzen den legez, aipa daitezke. Bestetik, unibertsitateekin itunduz egin beharreko jarduerak sartzen ditu planak eta jarduera horiek era espezifikoan sartzen dira garatzeko bost ardatzetako bakoitzean. Azkenik, jarduera osagarriak, interesatuta dauden talde guztiei irekita daudenak eta garatzeko ardatz bati edo gehiagori eragiten diotenak, jasotzen ditu planak.

Bi ardatz Jaurlaritzaren ildoekin eta unibertsitateen planekin: Prestakuntza eta irakaskuntza-metodologia berritzaileak eta Nazioartekotzea

Edonola ere, jarduera itunduen deskripzioa azpimarratzen du 2019-2022ko Unibertsitate Sistemaren Planak, aurreko plana ebaluatzeko prozesuari eta programa-kontratuen bidez finantzatzeko eskemari kasu eginez. Jarduera itundu horiek planaren diseinuan zehazten dira eta, beraz, garatzeko bost ardatzetako bakoitzean lotu dira.

Ondoren, bost ardatzak zehazten dira:

- **Bikaintasun-ikerketa.** Garapen-ardatz hori funtsezko gisa planteatzen da, Euskal Unibertsitate Sistema testuinguru globalean kokatzeko eta finkatzeko.

Eusko Jaurlaritzak hiru helburu estrategiko finkatzen ditu ardatz horretan: I+G+b-n giza baliabideak indartzea; ikerketa-jarduera sustatzea; eta ikerketa-azpiegiturak areagotzea.

- **Unibertsitatea+Enpresa.** Unibertsitateen eta enpresen arteko eta unibertsitateen eta gizartearen arteko erlazioak lantzen ditu ardatz horrek, unibertsitateen ahaleginak Euskadiren aurrerabidera eta gizarte-eraldaketara bideratzeko eragile gisa, haren premiei erantzunez.

2017tik indarrean, I. Unibertsitate eta Enpresaren arteko 2022rako Euskal Estrategiak bi helburu nagusiren bidez zehazten du Eusko Jaurlaritzak ardatz horretan duen ikuspegia: batetik, bikaintasun zientifikoarekin eta hark enpresa-sarean duen aplikazioarekin lotutako ezagutza sortzea eta transferitzea; eta bestetik, goi-mailako gaitasunak eta enpresa-esparruko premietara aplikatutako eta egokitutako osagai bat dituen giza kapitala prestatzea.

- **Prestakuntza eta irakaskuntza-metodologia berritzaileak.** Euskadin unibertsitate-alarreko erreferentzia-esparru sendo eta berritzaile bat garatzearekin lotuta dago, haren plangintzari, edukiei eta abiarazteari dagokienez.

Ardatz horretan, unibertsitateek kontuan hartu behar dituzten ildo jakin batzuk proposatzen dira; hauekin dute zerikusia ildo horiek: Titulazioen Mapa; Graduondokoen eskaintza indartzea; eta Ilek Hezkuntza Berritzatzeko Programetan parte hartzea eta Ilek Docentian edo programa baliokide batean egiaztatzea.

- **Nazioartekotzea.** Unibertsitatearen xede guztietara zabaltzen den prozesu gisa planteatzen da, unibertsitate-sistemaren bitartez gure gizarteak beste gizarte batzuekin erlazioa izan dezan sustatzeaz gain. Ikuspegi horretan, bereziki nabarmengarria da bikaintasun-ikerketaren rola, lotura estua baitu nazioartekotze-prozesuarekin. Bikaintasun-ikerketak nazioarteko ikuspegia izan behar du beti, baina tokiko testuinguruan sakon errotuta dago aldi berean.

2019-2022 USPen Nazioartekotzea Garapen-ardatza txertatzeak zehatz eta argi islatzen du garrantzi handia ematen zaiola EUS nazioartean orientatzeari dimentsio guztietan. Horrenbestez, Bikaintasun-ikerketa Ardatzaren, Unibertsitatea+Enpresa


Lehentasunezko bi ardatz Jaurlaritzaren eta unibertsitateen planekin: Bikaintasun-ikerketa edo Unibertsitatea+Enpresa

Jaurlaritzaren ildoak eta unibertsitateen ekintzak biltzen dituen ardatz bat: Unibertsitate-komunitatea

Ardatzaren eta Irakaskuntza-metodologia berritzaileetan oinarritutako prestakuntza Ardatzaren zeharkako garapen-ardatz gisa planteatzen da nazioartekotzea.

- **Unibertsitate-komunitatea.** Unibertsitate-kolektibo batzuen erronka garrantzitsu batzuk –gizarte osoari eragiten diotenak– lortzeko helburua du.

Zehazki, Eusko Jaurlaritzak hiru esku-hartze esparru –2019-2022 USP kontuan hartu beharrekoak– identifikatzen ditu Unibertsitate-komunitatea Ardatzean: genero-berdintasuna sustatzea; euskararen erabilera hedatzea; eta ekitatea. Unibertsitateek esparru horietan jarduteko hainbat ekintza planteatzen dituzte.



12. irudia: 2019-2022 Unibertsitate Sistemaren Planeko garapen-ardatzak.

Garapen-ardatz horiek erreferentziatzen hartuta, 2019-2022 USPek zenbait estrategia-desberdintasun planteatzen ditu aurreko planekin alderatuta: lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzaren ustez sustapen berezia behar duten ildo estrategikoetan sakontzen du; eta bigarrenik, unibertsitateen plangintza modu argia eta zehatzean biltzen du ildo horietan.

Eusko Jaurlaritzak bereziki sustatu behar dituen ardatzen barneko garapen-ildo estrategikoetan sakontzen du 2019-2022 USPek; horretarako, Eusko Jaurlaritzaren arreta eta baliabideak bilduko dituzten lehentasunezko bi ardatz identifikatzen ditu: Bikaintasun-ikerketa edo Unibertsitatea+Enpresa.

Ikuspegi horrekin, 2019-2022 USPek, lege bidez ezarritako eskakizunei erantzuteaz gain, balio erantsi handiagoko plangintza egin nahi du:

- EUSen eta EUSeko unibertsitateen garapenean **erreferentzia-esparru estrategiko** gisa duen zeregina sendotuz.
- Sistemaren eta unibertsitateen mailan planteatzen diren **jarduketak lerrokatuta** egongo direla bermatuz.
- Unibertsitateen eta Eusko Jaurlaritzaren artean mobilizatzen den **ahalegin partekatua**ren **ikuspegi integrala** eskainiz.

EUSeko unibertsitateek, garapen-ardatzetan zehaztutako planetan, erantzun egiten diete Eusko Jaurlaritzak markatutako derrigorrezko elementuei eta, halaber, beste elementu gehigarri batzuk ere erantsen dituzte, euren autonomia baliatuta.

Programa-kontratuak sinatzearekin batera, unibertsitateek beren gain gartzen dute plan guztiak betetzeko konpromisoa

Unibertsitateen plan horietan jasota dago unibertsitateek bete egin behar dituztela bai Eusko Jaurlaritzak babestutako ekintzak bai hark babesten ez dituenak. Unibertsitateen estrategia naturalarekin eta EUSen lehia-deialdiekin lerrokatutako funtsezko zati bat dute. Horretaz gain, osorik ebaluatuko dira, bai Eusko Jaurlaritzak finantzaturako zatia bai unibertsitate bakoitzak finantzaturakoa.

Maila operatiboari gagozkiola, programa-kontratuetan bilduta geratzen dira bai planetan garatuko diren jarduketak guztiak bai unibertsitateek eta Eusko Jaurlaritzak horietako bakoitzean egingo duten aurrekontu-ahalegina. Planetan bildutako ekintza guztien artean aukeratutakoak babesteko Eusko Jaurlaritzak ematen duen laguntza antolatzeke balio dute tresna horiek.

Ildo horretan, programa-kontratuak ez dute programaren baliozkotasunaz haraindiko konpromisorik finkatzen, aurrekontu-eskuragarritasunean oinarritutako aurrekontua urtero formalizatzea eskatzen dute eta planen guztizko kostuen aurreikuspen bat jaso behar dute, baita aurreikusitako finantzaketa-iturrien aurreikuspen bat ere.

3.3 Euskal Unibertsitate Sistemaren 2022rako ikuspegia




Euskal Unibertsitate Sistema legez aitortutako errealitatea da eta, beste atal batzuetan jada adierazi dugun bezala, hiru unibertsitatez osatuta dago gaur egun: EHU, DU eta MU. Lege-kontzeptualizazio horretaz haratago, legean jasota dago Euskal Unibertsitate Ekosistemak errealitate aberatsagoa barne hartzen duela, honako hauek gehitzen baititu:

- Sistemari nazioarteko talentua erakartzen eta titulazioen, irakasleen eta zentroen kalitatea ziurtatzen **laguntzeko eragileak**, hala nola Ikerbasque eta Unibasq, hurrenez hurren.
- Mota desberdinetako eragile zientifiko eta teknologikoen arteko koordinazioa gauzatzeko gai diren **tarteko eragileak**, hala nola Euskampus eta 4Gune Hezkuntzako Klusterra, EUSeko unibertsitateen hainbat fakultate biltzen dituenak.
- Oinarrizko ikerketan espezializatutako **eragile zientifikoak**, EUSekin oso lotura estua duten zeharkako ezagutza-alarretakoak, hala nola Oinarrizko Ikerketarako eta Bikaintasun-ikerketarako Zentroak (BERC deritzenak).

EUSen 2022rako ikuspegitik, Euskal Unibertsitate Ekosistemaren barneko eta hartatik kanpoko eragileen arteko erlazioan planteatzen diren bilakaera-lerroak hiru dinamika orokorrek finkatzen dituzte: egonkortasuna, kapilaritatea eta enplegarritasuna. Hau da:

- **Egonkortasuna**, lan-erritmo eta emaitza-etorkizun desberdinekin lan egiten duten erakundeen arteko lankidetzaren dinamika sortzen laguntzen duen osagai gisa.
- **Kapilaritatea**, erakundeek multzo gisa dituzten erlazioetarako bideak baino urrutiago joanez; hots, haien egiturekin eta/edo horien osagaiekin ere bilatzen dira erlazioak, ikusten bada beharrezkoak direla bizkortasunarekin edo malgutasunarekin loturiko arazoiengatik.
- **Enplegarritasuna**, prestakuntzarako eta talentu-sorkuntzarako gida-elementu gisa, EUSeko unibertsitateak beste eragile batzuekin estuki lankidetzan aritzera behartzen dituenak, lehen Goi-mailako Hezkuntzako erakundeetara mugatuta zegoen esparru batean.

EUSen
 2022rako
 ikuspegiak
 hiru gako ditu:
 egonkortasuna
 , kapilaritatea
 eta
 enplegarritasuna

BARRUKO EGITURAKETA	INGURUNEAREKIKO LOTURA
 <p>1. eboluzio-lerroa. BERCekiko lotura indartu eta aprobetxatzea.</p>	 <p>3. eboluzio-lerroa. Enpresen eta LHko zentrozen arteko harremanak artikulatzea, enplegagarritasuna aldeztuko.</p>
 <p>2. eboluzio-lerroa. EAEko Unibertsitate-sistemaren unibertsitateen arteko kapilaritate handiagoko formulatarantz egitea.</p>	 <p>4. eboluzio-lerroa. RVCTIko beste eragile batzuekiko lankidetzara iraunkorrek formulak sortzea, sinergiak aprobetxatzeko eta aukerak esploratzeko.</p>
KANPOKO PROIEKZIOA	
 <p>6. eboluzio-lerroa. Euskadi-Akitania Euroeskualdeko Mugaz Gaindiko Kanpusa sendotzea.</p>	
 <p>7. eboluzio-lerroa. EAEko Unibertsitate-sistemaren laguntza-eragileak espezializazio-eremuari atxikitako Europako panoramaren programan (ENQA, H2020...).</p>	

Globalki planifikatzea: Jaurlaritza eta EUSeko

13. irudia: Euskal Unibertsitate Sistemaren 2022rako bilakaera-lerroak.

Barne-eraketaren ikuspegitik, Euskal Unibertsitate Sistemaren 2022rako ikuspegiak Sistemagoa izatera behartzen du hura, hain zuzen ere. EUSek, bere osagaien agregazioaren aurrean, barne-erlazio eta -dinamika ugari sortzeko gai izan behar du Planaren indarraldian. Hasteko, 2019-2022 aldiaren landu beharreko bi bilakaera-lerro identifikatzen dira:

- BERC zentroekiko erlazioa indartzea eta aprobetxatzea.** BERCekiko erlazioaren potentziala sendotu eta aprobetxatu behar du EUSek, bikaintasun-ikerketarako zentroak direlako. Gaur egun, erlazio hori unibertsitate publikora mugatuta dago eta, beraz, EUSeko gainerako unibertsitateetara zabaldu behar du. EHUren kasuan, hark ere arakaten jarraitu behar du, erakunde horien potentziala aprobetxatu eta indartzeko modu hobek topatzeko.
- Unibertsitateen artean kapilaritate handiagoko erlazioak lortzeko formulatarantz aurrera egitea.** Unibertsitateak erakundeak dira eta, kudeaketa-unitate gisa, batzuetan ez dira behar bezain bizkorak koordinazio- eta lankidetzara-dinamikak sustatzeko. Derrigorrean egin behar da aurrera EUSi malgutasun handiagoa emango dioten formulak lortzeko zereginetan, erronkei ekiteko eta soluzio egokiak bilatzeko, abenduaren 19ko 274/2017 Dekretuan –gradu, master eta doktorego tituluak lortzeko egin behar diren unibertsitate-ikasketa ofizialak ezartzeari eta kentzeari buruzkoan– proposatzen den bezala. Ildo horretan, unibertsitateen arteko erlazioak baino urrutiago joanez, 4Gune Hezkuntzako Klusterra eta enpresen eta unibertsitateen arteko AIC gela, esate baterako, EUSeko unibertsitateetako fakultateen arteko lankidetzarako dinamiken adibide onak dira.

Ingurunearekin duen erlazioaren ikuspuntutik, Euskal Unibertsitate Sistemaren 2022rako ikuspegia lotuta dago Berrikuntzaren Euskal Sistemaren barnean kokapen zentralagoa lortzearekin. Horretarako, 2019-2022 aldiaren landu beharreko hiru bilakaera-lerro identifikatzen dira:

- Enpresekiko eta lanbide-heziketako ikastetxeekiko erlazioa antolatzea, enplegagarritasuna faboratzeko.** EUSek elkarlanean aritu behar du enprekin eta lanbide-heziketako ikastetxeekin, enplegagarritasuna faboratzen duten ikasketa-programak garatzeko egiten ari den ahaleginaren ildo beran; horren adibide zehatzak dira, kasu baterako, titulazio dualak eta «enplegagarritasuna» sektoreko ikasketa-kategorizazioarekin loturiko Titulazioen Maparekin sustatu nahi den kasu estrukturalagoa.

Tokian ezartzea: Eskolak eta Fakultateak, ikerketa-taldeak, ikertzaileak eta laguntza-eragileak

Europak EUSen erreferentzia izan behar du, hura nazioartean proiektatzeari dagokionez

2. **ZTBESko beste eragile batzuekin lankidetzan egonkorra gauzatzeko formulak sortzea, sinergiak aprobetxatzeko eta aukerak arakatzeko.** EUSek ZTBESko beste eragile batzuekin duen erlazioa sendotu behar du, epe laburreko proiektu eta ekimenez aparte. Euskampus ekimena, adibidez, lankidetzarako formulen adibide ona da, kasu honetan, EHUren, Tecnaliaren eta DIPCren artean. Baliaturiko formula alde batera utzita, gomendagarria da EUSeko unibertsitateak ZTBESko beste erakunde batzuetara gerturatzea faboratuko duten mota horretako ekimen gehiago abiaraztea.
3. **Maila anitzeko ikuspegi integral batean oinarritutako erlazioa enpresa-sarearekin.** Herriaren erronkei erantzuteko, agerikotasun handiagoko eragile bihurtu behar du EUSek, eta planteamendu orokor horretan bereziki nabarmendu behar da enpresa-sarearekiko erlazioa. Plan hau amaitzean, EUSeko unibertsitate guztiek lankidetzan-dinamika sendoagoa izan behar dute enpresa-sarearekin, ongi zehaztutako estrategia batean oinarrituta. Helburu hori izanik, prestakuntza, ikerketa eta transferentzia barne hartuko dituen ikuspegi integral batean oinarrituta hartu behar da kontuan enpresa-sarera gerturatze hori, baita maila anitzeko ikuspegi bat ere; ikuspegi horretan, erlazio-formulen bilaketak ez du agortu behar enpresen eta unibertsitateen arteko erlazioan; horren ordez, enpresen eta zentroen arteko, enpresen eta taldeen arteko eta/edo enpresen eta ikertzaileen arteko erlazioetara ere zabaldu behar du.

Kanpoko proiektuari gagozkiola, Euskal Unibertsitate Sistemaren 2022rako ikuspegia lotuta dago nazioarteko beste unibertsitate-sistema batzuekin lankidetzan aritzeko dinamikak sortzarekin eta EUS nazioartean proiektatzearekin. Aukera espezifikoek haratago, EUS nazioartean proiektatzeari dagokionez, Plan honek Europari begiratzen dio, bere garapen-ardatzetarako funtsezko erreferentzia gisa eta, horrenbestez, Basque Country Estrategiaren lehentasunekin lerrotatzen da¹⁵.

2019-2022 aldian landu beharreko bi bilakaera-lerro identifikatzen dira:

1. **Akitania-Euskadi Mugaz Gaindiko Euroeskualdeko Campusa finkatzea.** 2019-2022 USPen indarraldian Akitaniako Unibertsitate Sistemarekiko erlazioa finkatzeko erronka du EUSek. Azken urteotan, ahalegin nabarmengarriak egin dira erakundeen eta unibertsitateen artean elkarlana eta lankidetzan sustatzeko ekimenak abiarazteko. EHUK eta Bordeleko Unibertsitateak Euskampusen bitartez gauzaturiko ekimenak, kasu baterako, abiapuntu onak dira eta beste esparru batzuetara eraman beharko lirake. Hori lortzeko ahaleginean, Euroeskualdeko Campus horren finkapena ikuspegi zabal batean oinarrituta ulertu behar da, mugaz gaindiko dinamika horretan hainbat eragile –zientziaren, teknologiaren, gizartearen eta enpresen alorretakoak– barne hartuko dituen ikuspegi batean, hain zuzen ere.
2. **EUSeko laguntza-eragileak euren espezializazio-esparruarekin lotutako Europako sare eta programetan (ENQA, H2020, etab.) txertatzea.** Europako erakunde onenek euren espezializazio-esparruetan parte hartzeko sare eta dinamiketan Unibasq eta Ikerbasque sartzea da 2019-2022 aldian lortu nahi diren erronketako bat. Unibasq eta Ikerbasque sare eta dinamika horietan parte hartzea eta kokapen ona lortzea oso lagungarria izango da haien gaitasunetarako eta, honenbestez, haien zerbitzuak ere hobetu egingo dira. Aurrerapauso hori onuragarria izango da EUSeko eragile guztientzat.

4 Planaren gobernantza


2019-2022 USPen Gobernantzak hiru elementu nagusi hartzen ditu barne: lehenik, denbora-tarte horretan EUSek kudeaketarako, jarraipenerako eta koordinaziorako baliatuko dituen **organoak**; bigarrenik, Planaren bitartez baliatu nahi diren **baliabideen mobilizazioa**; eta azkenik, Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko erabiliko den **adierazleen eta jomugan** sistema.

¹⁵ Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020 Euskadiren nazioartekotze-premiei erantzuteko eta gizarte global eta irekiago izateko helburua lortzeko baliabidea da.

4.1 Plana gauzatzeko, kudeatzeko eta koordinatzeko eta planari jarraipena egiteko organoak

Plan honetan, Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten unibertsitateak hartzen dira ekintzak gauzatzeko organotzat.

Bestalde, aurrerapauso propioetara eta testuinguru-kondizioek izan ditzaketen aldaketetara egokitzeko gai izan behar duen plangintza estrategiko ireki gisa planteatzen da 2019-2022 USP, eta ez dago zertan itxaron haren indarraldia amaitu arte aldaketak txertatzeko. Hori dela-eta, Planak aldaketak sartzen ditu bere gobernantzan, Planaren kudeaketa eta jarraipena errazagoak izan daitezen eta, horrenbestez, Planaren eskakizunei erantzuteko.



14. irudia: 2019-2022 USP kudeatzeko eta koordinatzeko eta hari jarraipena egiteko organoak.

Hezkuntza Saila da 2019-2022 USPen buru; Planaren gobernantza hainbat organo eta batzorderen bitartez gauzatzen da; hiru motatakoak dira organo eta batzorde horiek:

- **Kudeaketa-organok.** 2019-2022 USP behar bezala garatzen eta abiarazten ari dela eta EUS osoa bilakaera izaten ari dela zaintzeko ardura dute kudeaketa-organok. Honako hauek dira kudeaketa-organok: Zuzendaritza Batzordea eta Batzorde Betearazlea.
 - *Zuzendaritza Batzordeak* Planaren eta EUSen garapena sustatzeko ardura du, baita erabakiak hartzeko ardura ere, testuinguru-premietara egokitze aldera.
 - *Batzorde Betearazleak* Planaren garapenari jarraipena egiteko eta garapen hori ebaluatzeko ardura du, baita Zuzendaritza Batzordea jakinaren gainean jartzeko ere.
- **Koordinazio-organok.** Koordinazio-organok erakundeen arteko lankidetzeta eta elkarlana, sailen arteko koordinazioa (Eusko Jaurlaritzaren barnean), neurrien osagarritasuna eta ekimen eta proiektuen sustapen koordinatua faboratzen saiatzen dira. 2019-2022 USPek hiru organo baliatzen ditu koordinazio-eginkizun horietarako.
 - *Euskadiko Unibertsitate Kontseilua* Euskal Unibertsitate Sistema koordinatzeko erakundea da eta, orobat, Eusko Jaurlaritzaren kontsulta- eta aholku-erakundea unibertsitate-gaietarako. Kontseilu horretan, unibertsitateez gain, beste eragile eta erakunde batzuek ere hartzen dute parte eta, beraz, erakundeen arteko lankidetzeta eta elkarlana faboratzen da; gainera, Planaren esparru guztiez arduratzen da.
 - *Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua* aholkularitza- eta partaidetzeta-organoa da, Euskal Unibertsitate Sistemaren helburuak zehazteko,

eta erakundeen arteko lankidetzaz eta elkarlana faboratzen ditu; halaber, Planaren esparru guztiez arduratzen da.

- *Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua (ZTBEK)* goreneko organoa da Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, zientziari, teknologiari, ikerketari eta berrikuntzari buruzko politikaren alorreko parte-hartzean, aholkularitzan eta lidergoan. Kontseilu horretan, unibertsitatez gain, beste eragile eta erakunde batzuek ere hartzen dute parte eta, beraz, erakundeen arteko lankidetzaz eta elkarlana faboratzen da. Halaber, Eusko Jaurlaritzaren sail guztiek osatzen dute Sailen arteko Koordinazio Organoa, esparru hauei buruzko aholkularitza emateko: bikaintasun-ikerketaz eta ezagutza gizarteari transferitzea.
- **Jarraipen estrategikorako batzordeak.** EUSen eta 2019-2022 USPen garapenari jarraipen estrategiko eta operatiboa egiteko arduradunak dira. Gobernantza-maila horretan hiru batzorde planteatzen dira.
 - *EHUren Batzordea* Hezkuntza Sailaren eta unibertsitate publikoaren arteko hausnarketa estrategikorako gunea da. Batzorde horrek EHUren Ohiko Ekarpenean, urte antzeko inbertsio-planaren eta garapen-ardatzari dagozkien planen jarraipena hartzen ditu barne.
 - *DUren Batzordea eta MUREn Batzordea* Eusko Jaurlaritzaren eta bi unibertsitate horien arteko hausnarketa estrategikorako guneak dira. Unibertsitate horiek garapen-ardatz bakoitzean dituzten planen jarraipena barne hartzen du.

4.2 Baliabideen mobilizazioa

2019-2022 Unibertsitate Sistemaren Planean oso baliabide-mobilizazio garrantzitsua aurreikusten da, Planaren lau urteko indarraldian martxan jarri beharko diren ekintzak gauzatzen direla bermatzeko. Ekintza horiek ez daude lotuta unibertsitateek euren jardura nagusia –prestakuntza, ikerketa eta transferentzia– gauzatzearekin, egitura-aldaketarako ekimenekin baizik; ekimen horiek honako hauetan aurrera egiteko balio behar dute: ikerketa bikaintasuneko izatea eta nazioartean konektatuta egotea; Unibertsitatea+Enpresa erlazioa eraginkorragoa eta inpaktu handiagokoa izatea; irakaskuntza-eskaintza berritzailea izatea; eta Unibertsitate Sistema inklusiboa eta berdinzalea izatea genero-berdintasunari, hizkuntza-politikari eta ekitateari dagokienez, nazioartekotzea bultzatzeaz gain. Laburbilduz, EUS planak garapen-ardatz guztietan duen kokapena hobetzeko ekintzak.

Baliabideak mobilizatzeko, ahalegin partekatua egin beharko dute EUSeko unibertsitateek eta Eusko Jaurlaritzak, bai euren artean bai denok elkarrekin, finantzaketa gehigarria – pribatua, publikoa eta nazioartekoa– lortzeko iturrien bila.

Ahalegin partekatu hori Eusko Jaurlaritzak zuzenean emandako laguntza batean hezurramitzen da; zehazki, planean ezinbestekotzat identifikatutako elementuak eraginpean hartzen dituzten ekintzetarako baliabideen bitartez ematen da laguntza hori, eta unibertsitateek euren autonomiari eusten diote, nor bere estrategiari jarraikiz egokitzen jotako bestelako ekintzak gauza ditzaten, ekintza horiek bideragarri egiten dituzten finantzaketa-iturrien bidez.

Ikuspegi global horretan oinarrituta, 2019-2022 Euskal Unibertsitate Sistemaren Planak biltzen dituen bost garapen-ardatzetan 750 M€ baino gehiago mobilizatuko dituela aurreikusten da; horien % 41,1 unibertsitateen berezko baliabideetatik (UBB) etorriko da; % 35,6, berriz, finantzaketa publiko ez-lehiakorretik (FPEL); % 8,6, bestalde, finantzaketa publiko lehiakorretik (FPL); % 6,8, ordea, nazioarteko finantzaketatik (NF); eta % 8,0, azkenik, kontratu bidezko diru-sarreretatik (KDS). Bereziki:

- **Bikaintasun-ikerketaz Ardatzak** 277,6 M€ mobilizatzea aurreikusten du. Horren % 37,5 UBBetatik etorriko da; % 23,2, FPELetik; % 23,5, FPLtik; % 0,3, KDSetatik; eta gainerako % 15,5a, azkenik, NFtik. Baliabide gehien mobilizatzen dituen ardatza da, eta guztira mobilizatutako funtsen % 37 hari dagokio.

- **Unibertsitatea+Enpresa Ardatzak** 118,3 M€ mobilizatzea aurreikusten du. Horren % 30,7 UBBetik etorriko da; % 31,2, FPELetik; % 38,1, KDSetik; eta % 0,1, NFtik. Planaren garapen-ardatzen agregatuan guztira mobilizaturako funtsen % 15,8 dagokio ardatz horri.
- **Prestakuntza eta irakaskuntza-metodologia berritzaileak Ardatzak** 157,4 M€ mobilizatzea aurreikusten du. Horren % 56,3 UBBetik etorriko da; % 32,8, FPELetik; % 7, FPLtik; % 1,3, KDSetik; eta % 2,6, NFtik. Ardatz horri guztira mobilizaturiko funtsen % 21,0 dagokio.
- **Nazioartekotzea Ardatzak** 54,4 M€ mobilizatzea aurreikusten du. Horren % 37,6 UBBetik etorriko da; % 30,2, FPELetik; % 0,2, FPLtik; eta % 32,0, NFtik. Guztira mobilizaturako funtsen % 7,3 ardatz horri dagokio; nolana ere, Nazioartekotzea Ardatzari berez dagozkion ekintzak baino ez dira zenbatu ardatz horren barnean, eta ez aurreko hiru ardatzetan bilduta egonik nazioartekotze-osagaia duten ekintzak.
- **Unibertsitate-komunitatea Ardatzak** 142,7 M€ mobilizatzea aurreikusten du. Horren % 27,6 UBBetik etorriko da; % 71,9, FPELetik; % 0,1, FPLetik; eta % 0,4, KDSetik. Guztira mobilizaturiko funtsen % 19 ardatz horri dagokio.

4. taula: 2019-2022 USPen garapen-ardatzetan mobilizaturiko baliabideen aurreikuspena¹⁶.

Garapen-ardatzak (Euroak, milioitan)	Guztizko mobilizazioa , 2019-2022	2019-2022					
		Finantzaketa-iturri bakoitza (%)					
		UBB	FPEL	FPL	KDS	NF	Guztira
1. A. Bikaintasun-ikerketa	277,6	% 37,5	% 23,2	% 23,5	% 0,3	% 15,5	% 100
2. A. Unibertsitatea+Enpresa	118,3	% 30,7	% 31,1	% 0,0	% 38,1	% 0,1	% 100
3. A. Prestakuntza eta irakaskuntza-metodologia berritzaileak	157,4	% 56,3	% 32,8	% 7,0	% 1,3	% 2,6	% 100
4. A. Nazioartekotzea	54,4	% 37,6	% 30,2	% 0,2	% 0,0	% 32,0	% 100
5. A. Unibertsitate-komunitatea	142,7	% 27,6	% 71,9	% 0,1	% 0,4	% 0,0	% 100
Garapen-ardatzak guztira	750,3	% 41,1	% 35,6	% 8,6	% 6,8	% 8,0	% 100

Zehazki, seinalaturiko baliabide-mobilizazio haren barnean, Hezkuntza Sailak hainbat bidetatik laguntzen du, honako ildo hauei erantzunez:

- Unibertsitate publikoaren jarduera bermatzea, behar besteko finantzaketa-mailarekin, lege bidez ezartzen den bezala, finantzaketa arruntaren kasuan; 2019-2022 aldian finantzaketa arrunta 1.181 M€-rainkoa izango dela aurreikusten da.
- Azpiegitura berrietan 29 M€-tik gorako kopuru bat inbertitzearen aldeko apustu espezifiko egitea Plana indarrean dagoen aldia. Apustu hori EHUKo Medikuntza eta Erizaintza fakultaterako eraikin berria gorpuzten da..
- Programa-kontratuen baliabideak planaren lehentasunezko ardatzetara (Bikaintasun-ikerketa eta Unibertsitatea+Enpresa) bideratzea, zehazki, ezinbestekotzat identifikaturako elementuekin lotutako ekintzetara. Hori horrela izanik, ekartzea espero duen guztizkotik (200 M€), ia % 50 Bikaintasun-ikerketa Ardatzari dagokio.

¹⁶ UBB: Unibertsitateen berezko baliabideak; FPEL: Finantzaketa publiko ez-lehiakorra; KDS: Kontratu bidezko diru-sarrerak; NF: Nazioarteko finantzaketa.

- Zuzkidura aurrekontu-ildoetara egokitzea, ikerketarekin lotutako ekintzen sustapenean apustu gehigarri bat eginez, Eusko Jaurlaritzak I+G+b-ko baliabide ekonomikoak areagotzeko hartutako konpromisoaren ildo beretik (aurreko planean finkatutakoa baino % 5 gehiago).

5. taula: Hezkuntza Sailak 2019-2022 USPen mobilizatutako baliabideen banaketa.

Baliabidea (milaka eurotan)	2019	2020	2021	2022	Guztira 2019-2022
Finantzaketa ez-lehiakorra					
+ Ekarpen arrunta (*)	285.168	291.804	298.905	305.876	1.181.754
+ Programa-kontratuak	49.135	49.733	50.210	51.008	200.086
Bikaintasun-ikerketak	24.097	24.556	24.845	25.276	98.774
Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea	11.049	11.208	11.301	11.637	45.195
Prestakuntza eta nazioartekotzea	13.989	13.969	14.064	14.095	56.117
+ Urte Anitzeko Inbertsio Plana (*)	500	1.843	13.428	13.428	29.199
Guztira (milaka eurotan)	334.803	343.380	362.543	370.312	1.411.039

(*) 2015-2018 aldian izandako bilakaeran oinarrituta egindako kalkuluak, lleen ordainsari-osagarri gehigarrien ordainketa barne hartzen dutenak. Finantzaketa hori, azken batean, aurrekontu-eskuragarritasunaren eta justifikazioaren araberakoa da, eta EAeko Administrazio Orokor osorako ezarritako politika publikoekiko koherentziari eutsi behar dio.


4.3 Jarraipen- eta ebaluazio-sistema

2019-2022 Unibertsitate Sistemaren Planari jarraipena eta ebaluazioa egiteko, adierazleen eta jomugen Aginte Taula batez hornitzen da. Hiru mailatan antolatzen da Aginte Taula:

- **Euskal Unibertsitate Sistemaren Adierazleak.** 2019-2022 USPe bere garapen-ardatz bakoitzean lortu nahi dituen adierazle eta jomuga nagusiak biltzen ditu. Izan ere, adierazle eta jomuga horiek Planak erdietsi nahi dituen emaitzen laburpen kuantitatiboa dira. Horregatik, hain zuzen ere, adierazle eta jomuga gehienak Bikaintasun-ikerketak Ardatzean eta Unibertsitatea+Enpresa Ardatzean daude bilduta.
- **Unibertsitateek Sistemari egiten dioten ekarpenaren adierazleak.** Identifikatzen dute EUSeko unibertsitateek zein heinetan laguntzen duten Sistemaren adierazleak eta jomugak lortzen, batetik, termino absolututan, eta bestetik, termino erlatibotan, duen neurria normalizatu ondoren. Jarraipen-maila horren helburua ez da EUSeko unibertsitateen *ranking* bat egitea, oso eredu desberdinetakoak baitira; aitzitik, Eusko Jaurlaritzak ondo jakin nahi du unibertsitate bakoitzak zer heinetan laguntzen duen EUSen jomuga nagusiak lortzen.
- **Unibertsitateen Planen adierazleak ardatz bakoitzean.** Unibertsitate bakoitzaren bost planekin lotutako adierazleak eta jomugak biltzen ditu, 2019-2022 USPen garapen-ardatz bakoitzean. Jarraipen-maila horrek ahalbidetzen du, hain zuzen ere, jarraipena egitea plan horiei guztiei, baita programa-kontratuekin lotutako finantzaketa ebaztea ere.

Aginte Taula sortzeko baliatu diren adierazle gehienak nazioarteko hainbat *ranking*etatik hautatu dira, baina adierazle jakin batzuk EUSen berezitasunak kontuan hartuta sortu dira, segida historiko bat izateak pizten duen interesa alde batera utzi gabe.

Halaber, eta bere aurrekoekin gertatzen ez zen bezala, 2019-2022 USPeko adierazleak desberdinduta daude: batetik, zentzu hertsian jarraipen-helburua dutenak daude; bestetik, Sistemaren eta/edo unibertsitateen eginkizuna ebaluatzeko erabiliko direnak. Hertsiki jarraipen-helburua duten adierazleen kasuan, ez dago haien lorpenaren gaineko nahiko kontrolik.



15. irudia: 2019-2022 USPen Aginte Taularen eskema.

Epe ertainean, unibertsitateekin egindako plangintza estrategikoaren garapenak balio erantsia irabazi ahala, Planaren jarraipenak eta ebaluazioak Sistemaren adierazle eta jomugetan zentratuko dira eskusiboki.

Halaber, plana indarrean dagoen aldiaren erdian, 2019-2022ko Unibertsitate Sistemaren Planaren tarteko ebaluazio bat egingo du Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzak, 2019-2022ko Unibertsitate Sistemaren Planaren aurrerapenak, haren helburu estrategikoak gauzatu diren maila eta haren adierazleen bilakaera, 2019 eta 2020. urteetako programa-kontratuetan ezarritako helburuei begira, ezagutzeko asmoz.

Era berean, 2015-2018ko Unibertsitate Sistemaren Planaren azken ebaluazioari buruzko txosten bat egingo da, horren helburu estrategikoak azkenik zein mailatan gauzatu diren ezagutzeko aukera emango duena. Bi agiri horiei esker, 2019-2022ko Unibertsitate Sistemaren Plana gaurkotzeko proposamenak egin ahal izango dira, gauzatzeko aldiaren erdian. Azkenik, plan hori indarrean dagoen aldiak bukatuta, 2023. urtean azken txosten bat egin ahal izango dela aurreikusten da.

Egungo adierazleez gain, 2020an Aginte Taula berrikusi egingo da, adierazle eta jomuga berriak txertatzeko, bereziki, hauekin loturikoak: batetik, Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plan berria; bestetik, graduako, masterreko eta doktoregoko unibertsitate-irakaskuntza ofizialen –Euskal Unibertsitate Sistemak oinarritzko mailan, tarteko mailan eta maila aurreratuan eskainitakoak– kategorizazioa. Gizarteak Euskal Unibertsitate Sistemaren ezaugarriari buruzko informazio gehiago izatea da kategorizazioaren helburua.

6. taula: USPen Aginte Taula 2019-2022 aldian¹⁷.

Elkartzea	Adierazleak	Iturria	Hasierako datua (2016)	2019ko helburua	2020ko helburua	2021eko helburua	2022ko helburua
Baliabideak (3)	0.1 EAEko Unibertsitate-sistemako unibertsitateen gastua (M€)	EAEko US	549,6	595,2	617,9	641,0	663,7
	0.2 Unibertsitateek I+Gn egindako gastua BPGd-ren gainean (%)	EAEko US /EJ	%0,27	%0,27	%0,27	%0,28	%0,28
	0.3 EAEko Unibertsitate-sistemako ikasleentzako laguntza eta beken gastua (M€)	EJ	30,4	31,7	32,2	32,7	33,2
Unibertsitate + Enpresa(7)	1.1 EAEko Unibertsitate-sisteman aipu duala lortu duten titulazio ofizialen kopurua (gradua/masterra)	EAEko US	Ez dagokio	18 / 12	21 / 16	23 / 18	25 / 21
	1.2 Aipu duala daukaten titulazio ofizialekin matrikulatutako ikasle-kopurua (titulazio osoa edo ibilbideak) EAEko Unibertsitate-sisteman (gradua/masterra)	EAEko US	Ez dagokio	454 / 157	698 / 293	1.021 / 363	1.348 / 419
	1.3 STEM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematika) (gradua/masterra)	EAEko US	12.431 / 1.981	12.716 / 2.096	12.945 / 2.139	13.165 / 2.205	13.350 / 2.240
	1.4 Doitutako enplegu-tasa	Lanbide	%83	%84	%84	%84	%84
	1.5 EPO eta PCT patenteen eskaera	EAEko US	16	17	19	21	24
	1.6 EAEko Unibertsitate-sistemaren kontratupeko diru-sarrerak (M€)	EAEko US	19,3	19,9	21,0	21,8	22,9
	1.7 Goi-mailako kualifikazioko enpleguen kopurua, EAEko Unibertsitate-sistemak azken urteotan sortutako enpresetan	EAEko US	206	225	234	248	253
	2.1 Atxikitako Ikerbasque ikertzaileen kopurua (Research Fellows/ Research Associates/ Research Professors)	EAEko US	29 / 0 / 79	26 / 13 / 77	26 / 18 / 79	29 / 21 / 82	30 / 24 / 85
	2.2 Defendatutako tesi-kopurua	EAEko US	821	471	474	477	479
	2.3 Nazioarteko aipamenarekin defendatutako tesien %	EAEko US	%24	%34	%34	%35	%35
Bikaintasunera-ko ikerkuntza (8)	2.4 Ikerketa-talde bikainen kopurua (A taldeak, EJren deialdiaren arabera)	EJ	201	167	168	168	163
	2.5 Argitalpen zientifikoen kopurua ((Scopus/WoS)	Ikerbasque	3.608 / 3.101	3.837 / 3.254	3.963 / 3.358	4.093 / 3.464	4.228 / 3.573
	2.6 Argitalpenen ehunekoa lehen kuartilean JKZ (Scopus/ WoS)	Ikerbasque	%55,3 / E.d.e	%56,6 / E.d.e	%56,9 / E.d.e	%57,1 / E.d.e	%57,4 / E.d.e
	2.7 Nazioarteko baterako zientzia-argitalpenen kopurua (Scopus / WoS)	Ikerbasque	%48,5 / %46,8	%49,6 / %47,8	%50,7 / %48,8	%51,8 / %49,9	%53,0 / %50,9
	2.8 Europako Ikerketa Kontseilutik (ERC edo etorkizunean sor litezkeen laguntza baliokideak) urtean lortutako laguntzen kopurua	EAEko US	Ez dagokio	2	3	2	3
Hezkuntzako prestakuntza eta metologia berritzaileak (3)	3.1 Abandonu-tasa (gradua/masterra)	EAEko US	%16,2 / %5,1	%15,8 / % 5,1	%15,5 / %5,0	%15,3 / %4,9	%15,0 / % 4,9
	3.2 Graduazio-tasa(gradua/masterra)	EAEko US	%56,9 / % 85,1	%58,1 / % 85,2	%58,7 / %85,2	%59,1 / %85,2	%59,4 / % 85,2
	3.3 Docentian edo baliokidean egiaztatuta irakasten duten irakasle eta ikertzaileen % (gradua/masterra)	EAEko US	%29,1	%33,4	%36,9	%40,6	%45,3
Nazioartekotzea (3)	4.1 Atzerrian mugikortasun-programetan parte hartzen duten EAEko Unibertsitate-sistemako ikasleen % (gradua/masterra)	EAEko US	%5,2 / % 6,0	%5,4 / % 5,9	%5,8 / %6,2	%6,2 / %6,4	%6,7 / %6,7
	4.2 EAEko Unibertsitate-sisteman matrikulatutako nazioarteko ikasleen & (gradua/masterra/doktoradutza)	EAEko US	%4,2 / %18,0 / %22,0	%4,4 / %18,0 / %21,4	%4,6 / %18,1 / %21,4	%4,8 / %18,2 / %21,4	%5,2 / %18,7 / %21,4
	4.3 Ofizialak ez diren hizkuntzetan egiaztatuta lortu duten irakasle eta ikertzaileen % (C1))	EAEko US	%26,5	%27,4	%28,6	%29,5	%30,7
Unibertsitate-erkidegoa (6)	5.1 Hirugarren mailako hezkuntza duen populazioaren % (25-64 urte)	Eustat	%53,8	%55,0	%55,4	%55,8	%56,2
	5.2 Emakumeen % / irakasleak eta ikertzaileak guztira	EAEko US	%47,4	%52,0	%52,0	%52,0	%52,0
	5.3 Emakume ikasleen % / ikasleak guztira (gradua/masterra/doktoretza batezbestekoa)	EAEko US	%52,5	%52,0	%52,0	%52,0	%52,0
	5.4 Emakume ikasleen % / STEM titulazioetan matrikulatutako ikasleak	EAEko US	%32,5	%52,0	%52,0	%52,0	%52,0
	5.5 Irakasle eta ikertzaile elebidunen % / irakasle eta ikertzaileak guztira	EAEko US	%52,0	%56,1	%57,4	%58,8	%60,1
	5.6 Prestakuntza (gradua/masterra) euskaraz egin nahi duten EAEko Unibertsitate-sistemako ikasleen %	EAEko US	%46,5 / %11,8	%50,2 / %12,6	%50,8 / %13,1	%51,5 / %13,4	%52,1 / %13,8

¹⁷ 2016an indaxaturiko argitalpen zientifikoak Ikerbasquek urtero argitaratzen duen Zientzia Euskadin Txostenaren arabera zenbatu dira; izan ere, jomugen urteko ebaluazioa egiteko balioko du txosten horrek. WoS zerbitzuaren lehenengo kuartilean indaxatutako argitalpenen kasuan, zifra hori ateratzeko eta geroagoko ebaluazioa egiteko gaituko da Ikerbasque. 5.4. adierazleari dagokionez, helburu bat planteatzen da, hots, emakumeak euskal gizartearen duen garrantzira (% 52) hurbiltzea. Hori lortzeak dakartzan zailtasunez jabetzen gara, 2016ko abiapuntu-datua (% 32,5) kontuan hartuta.

5 Bikaintasun-ikerketaren Ardatza

Bikaintasun-ikerketaren Garapen-ardatzak lehentasunezko eginkizuna du 2019-2022 USP diseinatzeke eta abiarazteke prozesuan. Horregatik, funtsezko bi elementu hauek dituen estrategia bat zehazten da: ikerketaren bikaintasuna eta haren nazioarteko proiektzioa. Zeharkako bikaintasuna, hauek barne hartzen dituen: talentu zientifikoa sortzea, bikaintasun-ikerketarako taldeak sendotzea, ekoizpen zientifikoa eta haren kalitatea handiagotzea, Europako Ikerketaren Esparruan (EIE) kokatutako Zientziako Euskal Sistemaren lehiakortasuna handiagotzea.

Estrategia horretaz gain, unibertsitateek berezko plan estrategiko bana dute, 2019-2022 USPen indarraldian gauzatzeko.

5.1 Eusko Jaurlaritzaren plangintza

Eusko Jaurlaritzak, politika zientifikoa garatzearen esparruan, hiru helburu estrategiko ditu:

- **I+G+b-ko giza baliabideak** indartzea.
- **Ikerketaren jarduerak** sustatzea.
- **Ikerketaren azpiegiturak** areagotzea.

Bikaintasun-ikerketaren Ardatzeko helburu estrategiko horien garapenean aurrera egiten jarraitzeko, honako ekintza hauek proposatzen dira:

- Doktoreak ez diren ikertzaileen eta doktoreak diren ikertzaileen prestakuntza indartzea.
- Nazioarteko bikaintasun-irizpideak baliatuta ikertzaileak erakartzea, eta arreta berezia ipintzea euskal ikertzaileak txertatzeari.
- Euskal Unibertsitate Ekosistemaren bikaintasun-ikerketarako taldeen ikerketaren jarduerak babestea.
- Oinarrizko Ikerketarako eta Bikaintasun-ikerketarako Zentroak nazioartean proiektu eta ezagutzera eman daitezkeen sustatzea.
- Neutroikaren eta partikula-azelerazioaren alorreko ikerketaren indartzea.
- Azpiegitura zientifikoa sortzea eta finkatzea.
- Ikerketaren emaitzen hedapena sustatzea, zientziak aintzatespen sozial handiagoa izan dezan.
- Ikerketaguneak garatzeko laguntza-azpiegiturak sortzea (BIHAR guneak).
- Zientziaren zabalkundea eta hedapena babestea.
- EUSeko eragileen eta beste ikerketaren eragile batzuen –bai EAEkoen bai kanpokoentzako lankidetzak sustatzea, lehiakortasuna, kalitatea eta bikaintasuna handiagotzeko (ezagutza-erakarguneak aktibatzea).
- Euskadin superkonputazioa sustatzea.

Azken urteotan EUSen aurrerakadan izandako esperientziak, ikerketaren esparruan, erakusten digu bikaintasunaren eta nazioartekotzearen aldeko apustuari esker aurrerapauso handienak eman eta emaitza onenak lortu direla. Aurrerapauso horiek finkatzeko, Eusko Jaurlaritzak honako helburu operatibo hauek ezarri ditu:

- RIS3 herri-apustu estrategikoen inguruan bikaintasun-erakarguneak sortzea.
- Nazioarteko talentua –lehen mailakoa– erakartzea, EUSen gaitasunak sendotzeko eta EUS nazioartean proiektatzeko.
- ZTBESeko beste eragile batzuekiko –bereziki, BERC zentroekiko– osagarritasunak aprobeitza daitezkeen sustatzea, baita haiekiko lankidetzak ere.
- Nazioarteko presentzia lortzea, ezagutza-alor jakin batzuetan abangoardian kokatzeko eta aintzatespen handiena lortzeko.

Euskadik bere baliabideak apustu espezifikotan kontzentratzeko erronka du, nazioartean lehiakorra izatea lortzeko. Ideia horrekin, Eusko Jaurlaritzaren

lehenetsunetako bat da herriko RIS3 espezializazio adimentsurako apustuekin lerrokatutako bikaintasun-erakarguneen gaitasunak garatzen direla bermatzea.

Euskadiko Unibertsitate Sistemak, beste esparru batzuetan gertatzen den bezala, aurre egin beharreko erronka ugari ditu, hala nola belaunaldi-txandaketa, eta sistema bultzatzeko eta nazioartean proiektatzeko gai izango den talentu bikaina erakartzea. Ikerbasquek hasieratik lortutako emaitzen eta nazioarteko ikertzaileak erakartzeko gauzatutako jardueraren analisia baliagarria izan da baieztatzeko ekimen hori oso baliotsua izan dela, pertsona talentudunak hartu dituzten erakundeak bizkortu baititu, produktibitate zientifikoaren eta ikerketarako baliabideak erakartzearen inguruan emaitza nabarmengarriak izateaz gain. Ikuspegi horretatik, talentua erakartzeko bide horren aldeko apustua egiten jarraitzea eta bide hori erakunde eta azpiegiturretara gehiago zabaltzea planteatzen da 2019-2022 USPen.

EUSEk funtsezko rola du ZTBES osoan, talentu-prestakuntzaren eta ekoizpen zientifikoaren eragile nagusia baita. Kokapen gailen horretatik, ZTBESko eragileekin – mota guztietakoekin– lankidetzan aritzeko formulak arakatzeko erronka dauka, gaitasun zientifikoak eta teknologikoak gehitzeko ez ezik, ezagutza sortzearen eta merkatura transferitzearen balio-katean beste kokapen bat duten eragileekiko osagarritasunak aprobetxatzeko. Zehazki, kontuan izanik BERC zentroek espezializazio-maila handia dutela eta gertu dituztela, 2019-2022 USPen indarraldian horiekiko erlazioa aprobetxatzeko erronka espezifikoak dute EUSEko unibertsitateek.

EUSEk ikerketarako laguntza lortu ahal izan du, aintzatespen handiagoko baliabideen bitartez, hala nola Europako Ikerketa Kontseiluaren (ERC) laguntzen bidez. EUSEk apustu egiten jarraitu nahi du mota horretako laguntzak –ikerketarako laguntzak– erakartzearen alde, uste osoa baitu gaur egun posible dela emaitza hobekia lortzea. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak zehatz eta argi babesten du proposamenak aurkeztea ERCren laguntza-deialdietan, baita EUSera halako laguntzen onuradunak izan daitezkeen ikertzaileak erakartzeko aukera ere.

Bikaintasun-ikerketa Ardatzarekin lerrokatuta, 2019-2022 USPe azken jomuga batzuk identifikatzen ditu, EUSEk Plan honen indarraldian lortu beharrekoak eta hauekin lotutakoak: Ikerbasqueren bitartez nazioarteko talentua erakartzea; ikertzaileak prestatzea; bikaintasun-ikerketarako taldeen kopurua; ekoizpen zientifikoa eta haren kalitatea; eta Europako Ikerketa Kontseiluaren (ERC) laguntzak lortzea.


7. taula: Bikaintasun-ikerketa Ardatza. EUSen jomugak 2022rako.

Adierazleak	Abiapuntu-datua (2016)	Jomuga 2022
2.1 Adskribatuta dauden Ikerbasqueko ikertzaileen kopurua (Research Fellows / Research Associates / Research Professors)	29 / 0 / 79	30 / 24 / 85
2.2 Defendatutako tesien kopurua	821	479
2.3 Nazioarteko aipamenarekin defendatutako tesiak (%)	% 24	% 35
2.4 Bikaintasun-ikerketarako taldeen kopurua (Eusko Jaurlaritzaren deialdiaren arabera, A Taldeak)	201	163
2.5 Argitalpen zientifikoaren kopurua (Scopus / WoS)	3.608 / 3.101	4.228 / 3.573
2.6 Scopus eta WoS baliabideetako argitalpenak SJRren lehenengo kuartilean (%)	% 55,3 / Ez dago daturik	% 57,4 / Ez dago daturik

2.7	Nazioarteko baterako argitalpen zientifikoek kopurua Scopus eta WoS plataformetan (%)	% 48,5 / % 46,8	% 53,0 / % 50,9
2.8	Europako Ikerketa Kontseilutik (ERC edo etorkizunean sor litezkeen laguntza baliokideak) urtean lortutako laguntzen kopurua	Ez dagokio	3

EUSerako planteatzen diren jomuga horiek bete daitezzen, ezinbestean egin behar da unibertsitateen plangintza estrategiko bat, Plan honekin lerrotatuta egongo dena. Horretarako, unibertsitateen planetan kontuan hartu beharreko ezinbesteko elementu batzuk identifikatu dira.

8. taula: Elementu horiek ezinbestekoak dira Bikaintasun-ikerketa Ardatza sustatzeko.



Bikaintasunerako ikerkuntza

- RIS3 apustuekiko lerrotatzea
- Ikertzaileak bikaintasun-irizpideekin kontratatzea
- Bikaintasun-ikastaroak bultzatzea
- Jakintza-poloak
- ZTBESekiko lankidetzak
- Bikaintasuneko oinarritzko ikerketa-zentroekiko lotura
- Kanpoko funts lehiakorrek kaptatzea
- ERCak lortzea

Gehienak unibertsitateen agenda estrategikoan badaude ere, funtsezko elementu horietako batzuetan kontsentsu handiagoa behar izan da, unibertsitateen planetan txerta zitezten.

5.2 Sistemako unibertsitateen plangintza

EUSEko unibertsitateak beste egoera batetik abiatzen dira Bikaintasun-ikerketa Ardatz honetan eta, halaber, beste ikuspegi bat dute EUSen barnean kokatzeko moduari dagokionez. Desberdintasun horiek gorabehera, badituzte erronka eta helburu komun batzuk, hala nola hauek:

- **Hazkunde adimentsu eta jasangarria** lortzen laguntzea, Euskadiren garapenerako eta, ikerketaren bikaintasuna lortzeko bidean ez ezik, estrategiko gisa finkatutako arloetan erreferente gisa kokatzeko prozesuan ere aurrera egiteko (RIS3).
- Talentua sortzeko, nazioarteko **talentua** erakartzeko eta talentua zaintzeko politika proaktibo bat garatzea.
- Unibertsitateko **ikerketa-taldeak** kokapen zientifikoa hobetzea eta ikerketa-taldeak nazioarteko maila lehiakor batean kokatzea, bakoitza bere ezagutza-alorrean.
- **Ikerketa nazioartekotzeko** estrategia indartzea, proposamen lehiakorrek erakartzeko, nazioarteko kokapena eta agerikotasuna sustatzeko, eta bikaintasun-partzuergo eta -sareetan parte hartzea bultzatzeko.

Erronka eta helburu komun horiei buruz, unibertsitateek euren planetan kontuan hartu behar dituzten ezinbesteko elementu jakin batzuk planteatzen dira Bikaintasun-ikerketa Ardatzean:

- Jada aipatu dugun bezala, **RIS3 estrategiak** argi adierazten digu herri-lehentasunen noranzkoa zein den, baita ikerketaren ikuspegitik ere. Erreferente horretan oinarrituta, eta Unibertsitatea+Enpresa Ardatzean gertatzen den bezala, plangintza estrategikoa eta ekintzen berrikuspina egiteko eskatzen zaie EUSEko unibertsitateei: zehazki nola orientatzen dituzte gaitasun-sorkuntza eta I+G-ko eta berrikuntzako jarduerak RIS3 espezializazio-lerroetara.
- Unibertsitateek **ikertzaileak bikaintasun-irizpideekin erakartzeko** aurreikuspen bat planifikatu behar dute. Oraindik lortu ez bada ere, unibertsitateek Ikerbasque ikertzaileak erakartzeko harturiko konpromiso esplizitu batekin hezurramitzen da, praktikan, nahi hori.

- Unibertsitateek **bikaintasun-taldeak sustatzearekin** lotutako ekintzak planifikatu eta aurreikusi behar dituzte. Euren erakundeetan garrantzitsuenak diren taldeen aldeko apustu espezifikoak, Eusko Jaurlaritzaren deialdian haien deskribapena egiten den ildo beretik.
- Esparru batzuetan talentu zientifikoa eta ikerketa-jarduera sortzeko premiei erantzutea ahalbidetzen duten ekintzak planifikatu eta zehaztu behar dituzte unibertsitateek. Logikari jarraikiz, RIS3 esparruetatik gertu egon beharko luketen **ezagutza-erakarguneak** dira.
- **ZTBESko beste eragile batzuekiko lankidetzak** erronka argia da EUSeko unibertsitate guztientzat.
- Zehazki, EUSeko unibertsitateek kontuan hartu behar dute **BERC zentroekin lankidetzan aritzeko ekintzak gauzatzeko aukera**.
- Ardatz horri dagokionez, unibertsitateek beren planetan bildu egin behar dute **kanpo-funts lehiakorrak** –ikerketa-jarduerarekin lotuak– **nola erakarriko dituzten**.
- EUSeko unibertsitateek Planaren indarraldian **ERC zentro gehiago lortzeko** asmoa izan behar dute.

9. taula: Aurreikuspenen arabera EUSko unibertsitateek 2019-2022 Bikaintasun-ikerketa Ardatzean mobilizatuko dituzten baliabideak.

Garapen-ardatzak (Euroak, milioitan)	Guztizko mobilizazioa, 2019-2022	2019-2022				
		Finantzaketa-iturri bakoitzaren ehunekoa ⁽¹⁾				
		UBB	FPEL	FPL	KDS	NF
1. A. Bikaintasun-ikerketa	277,6 M€	% 37,5	% 23,2	% 23,5	% 0,3	% 15,5

(1) UBB: Unibertsitateen berezko baliabideak; FPEL: Finantzaketa publiko ez-lehiakorra; FPL: Finantzaketa publiko lehiakorra; KDS: Kontratu bidezko diru-sarrerak; NF: Nazioarteko finantzaketa.

EUSeko unibertsitateek guztira mobilizatuko dituzten baliabideak 277 M€-tik gorakoak izango dira 2019-2022 aldian; % 37,5 baliabide propioen bitartez mobilizatuko dira, eta gainerakoa, berriz, kanpoko finantzaketa-iturrien bidez.

Ardatz horrekin lotuta, 2020an DUren eta MUren ekintzak eta jomugak berrikusi egin beharko direla aurreikusten da.

6 Unibertsitatea+Enpresa Ardatza

Unibertsitatea+Enpresa Garapen-ardatzak ere lehentasunezko eginkizuna du 2019-2022 USP diseinatzeko eta abiarazteko prozesuan. Izan ere, 2019-2022 USP diseinatu baino lehen, Eusko Jaurlaritzak I. Unibertsitate eta Enpresaren arteko 2022rako Euskal Estrategia abiarazi zuen 2017ko erdialdean.

Estrategia honek Euskadi dinamizatzeko eta eraldatzeko eragiletzat aitortzen du EUS, eta rol hori nabarmendu eta bultzatzen du; horrela, lurraldea espezializaziogune adimentsu eta gizatiar bihurtzeko lidergoan presentzia izan beharko luke EUSek, euskal talentuak, ikerketak eta berrikuntzak nazioartean duten kokapena eta garapena sustatzeaz gain.

Estrategia hau –Eusko Jaurlaritzak garapen-ardatz honetarako duen plana aurkezten duena– alde batera utzita, unibertsitateek euren plan espezifikoak dituzte, 2019-2022 USPen indarraldian gauzatu beharrekoak.

Ardatz honetan, EUS osatzen duten hiru unibertsitateekin egin beharreko ekintzak –enplegarritasunarekin eta ekintzaitzarekin lotuak– itundu dira, eta bai 2020 Ekintzaitzeta Planaren bai 2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoaren osagarriak dira ekintza horiek. Zehazki, hauekin lotuta daude:

- Ekintzaitzeta-programak garatzea;

- Prestakuntza-programa dualak ezartzea;
- Tituludunen enplegarritasuna hobetzeko baliabideak sustatzea;
- Unibertsitatea+Enpresa gelak sustatzea;
- Enpresa-ekimen berriak sustatzea;
- Lanbide-prestakuntza eguneratzeko estrategiak garatzea.

6.1 Eusko Jaurlaritzaren plangintza

Unibertsitatea+Enpresa lankidetzak bultzatu behar da, beharrezko erronka gisa; izan ere, gizarteak gero eta gehiago eskatzen ditu trebakuntza-maila altuko eta konpromiso sozial handiko pertsonak eta, horregatik, XI. legegintzaldirako hartutako konpromisoen barnean Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak zuzentzen dituen ekimenetako bat unibertsitateen eta enpresen arteko lankidetzak da.

I. Unibertsitate eta Enpresaren arteko 2022rako Euskal Estrategian¹⁸ (UEEE 2022) zehaztuta dago Eusko Jaurlaritzak Unibertsitatea+Enpresa garapen-ardatzean egindako plangintza. Planteamendu hori lerrokatuta dago Europako Batzordeak 2017ko maiatzaren 30ean aurkezturiko Komunikazioan –Goi-mailako Hezkuntzarako Europar Batasunaren agenda berrituari buruzkoan– finkatutako erronkekin¹⁹; honako hauekin lotuta daude erronka horiek:

- Trebakuntza altua eskatzen duten lanbide jakin batzuetan dagoen **eskulan-eskasia** eta oinarritzko eta zeharkako gaitasunen falta **hobetuko duten ekintzak babestea**.
- **Irakasleei eta tituludunei buruz maiz egon ohi den pertzepzioa** –gizarteko gainerako pertsonengandik bananduta daudela– **gainditzeko lan egitea**.
- **Goi-mailako hezkuntzako erakundeek berrikuntzari egiten dioten ekarpena areagotzea sustatzeko ekintzak bultzatzea**, oro har, ekonomia osoan, eta bereziki, eskualdeetan.
- **Hezkuntza-sistemen usagarien arteko lan-harremanari –beti egoten ez denari– heldzea**, elkarrekin eta modu naturalean, besteak beste, gainerako hezkuntza-mailakiko –hala nola lanbide-heziketarekiko– elkarreagin-falta nabarmenduta.

Europako Batzordeak planteaturiko erronkei dagokienez, bi erronka nagusi planteatzen ditu UEEE 2022k, eta helburu operatibo jakin batzuetan hezurmamitzen dira erronka nagusi horiek:

1. helburua. Bikaintasun zientifikoarekin eta hark enpresa-esparruan duen aplikazioarekin lotutako ezagutza sortzea eta transferitzea. Helburu nagusi hori honako helburu operatibo hauen bidez eratzen da:

- Nola tokiko hala euroeskualdeko ikerketa- eta berrikuntza-bikaintasuna bultzatzea.
- RIS3 espezializazio adimentsurako strategiaren jasangarritasuna babestea.
- Ikerketaren gizarte-eragina babestea eta eragin hori gizartean bistartzea.
- Bikaintasun-ikerketarekin lotutako ekintzailtza-ekintzak babestea.
- Enpresen espezializazioa eta nazioartekotzea babestea, unibertsitateekin lankidetzan.
- EUSen eta Oinarritzko Ikerketarako eta Bikaintasun-ikerketarako Zentroetan (BERC) sortutako ezagutzaren transferentzia sustatzea.

2. helburua. Goi-mailako gaitasunak eta enpresa-esparruko premietara aplikatutako eta egokitutako osagai bat dituen giza kapitala prestatzea. Helburu nagusi hori honako helburu operatibo hauen bidez eratzen da:

- Profil eta gaitasun egokiak dituzten behar beste pertsona prestatzea.

¹⁸ I. Unibertsitate eta Enpresaren arteko 2022rako Euskal Estrategiak Euskadi dinamizatzeko eta eraldatzeko eragilezat aitortzen du Euskal Unibertsitate Sistema, eta rol hori nabarmendu eta sustatu egiten du.

¹⁹ Batzordeak Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeen Lantaldeari, Goi-mailako Hezkuntzarako EBren agenda berritu baten berri ematea. COM (2017) 247 amaierakoa. Brusela, 2017ko maiatzaren 30a.

- Alor akademikoko, enpresa-munduko eta gizarte-arloko eragileen arteko erlazioak bultzatzea eta egituratzea.
- Toki- eta euroeskualde-esparruan prestakuntza ematea, nazioartean lehiakorra izateko;
- Espezializazio adimentsua ardatz gisa txertatzea, goi-mailako gaitasunak dituen giza kapitala prestatzeko.
- Graduatuen enplegarritasuna hobetzea eta ekintzaitzarekin lotutako eragileen arteko lankidetzaren indartzea.
- Tituludunen ibilbide profesionalari buruzko ezagutzaren sakontzea.

Sustapen hori modu eraginkor eta koordinatuagoan lortzeko, estrategia horren helburuak RIS3 Euskadirekin lerrokatu dira, baita Eusko Jaurlaritzak EAEko erakunde eta eragile sozialekin lankidetzaren bultzatutako beste plan batzuekin ere.

Halaber, seinalatutako bi helburu nagusi horietaz arduratzeko, estrategia honek beheko taulan jasotako 15 ekintzak garatzea aurreikusten du.

10. taula: I. Unibertsitate eta Enpresaren arteko 2022rako Euskal Estrategia sustatzeko ekintzak.

1. ekintza:	Unibertsitate eta enpresaren arteko 2022ko estrategia gauzatzea.
2. ekintza:	RIS3-Euskadiren helburuei arreta emateko, euskal unibertsitate-sistemako fakultate eta eskolak klusterizatzea.
3. ekintza:	Unibertsitate eta enpresen aipuak definitzea, gradurako, graduondokorako eta doktoretzarako.
4. ekintza:	Prestakuntza eta ikaskuntzarako kontratua unibertsitate-prestakuntza dualaren eremura egokitzeko akordioak sustatzea.
5. ekintza:	Unibertsitatea eta LH unibertsitate-graduetan lankidetzaren aritzeko euskal markoaren definizioa.
6. ekintza:	Aipuak dituzten titulazioak EAEko Unibertsitate-sistemako unibertsitateetan ezagutu eta martxan jartzea.
7. ekintza:	Ikasleak Euroeskualdean eta Europa mailan prestatzeko harremanak sustatzea.
8. ekintza:	Unibertsitate eta enpresen arteko lankidetzaren sustatzea, ikasleen jarraipena, haien unibertsitate-prestakuntza bukatu ondoren, egiteko.
9. ekintza:	RIS3-Euskadi estrategiarekin lerrokatuta dauden enpresa eta unibertsitatearen arteko gelak martxan jartzea, unibertsitate eta enpresen arteko lankidetzaren enpresa-testuinguru batean sustatzeko.
10. ekintza:	EAEko Unibertsitate-sistemako Zientzia, Teknologia eta Berriztapenaren arloko eragileen eta enpresen arteko lankidetzaren hitzarmenak.
11. ekintza:	Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetzaren programa eta deialdiak Unibertsitate eta Enpresaren arteko 2022rako Euskal Estrategiaren helburuetara egokitzea.
12. ekintza:	Unibertsitate eta enpresaren eremuari dagokionez, 2019-2022ko Unibertsitate Plana egin eta aurrera eramatea.
13. ekintza:	Unibertsitate eta enpresaren arteko harremanak hedatzeko prozesua sustatzea.
14. ekintza:	Ekimen ekintzaile berriak sortzea sustatzeko programa bat definitzea, euskal unibertsitate-sisteman eta BERC zentroetan eskura dauden ezagutza eta teknologia baloratzetik eta transferitzetik abiatuta.
15. ekintza:	Gazteen Enplegu Planari lotutako laguntzen programa martxan jartzea.

UEEE 2022ren indarraldia 2017-2022 da, eta unibertsitateek euren autonomia baliatuz heldutako ekintzak 2019-2022 USP-en planteaturiko ekintzen osagarriak dira; izan ere, estrategia hura hartu da 2019-2022 USP zehazteko erreferentzia gisa.

2019-2022 USP-ek bere indarraldian lortu beharreko azken jomuga batzuk – Unibertsitatea+Enpresa garapen-ardatz honekin lerrokatuak – identifikatzen ditu, hauekin lotuak: lan-merkatuaren bideratutako titulazioak egokitzea; ikasle tituludunen enplegarritasuna eta enpleguaren kalitatea; enpresa-sarearekiko lankidetzaren; eta intraekintzaitza, goi-mailako kualifikazioko enplegua sortzeari dagokionez.

11. taula: Unibertsitatea+Enpresa Ardatza. EUSen jomugak 2022rako.

Adierazleak	Abiapuntu-datua (2016)	Jomuga 2022
1.1 EUSen aipamen duala (Gradua/Masterra) lortu duten titulazio ofizialen kopurua	Ez dagokio	25 / 21
1.2 EUSen aipamen duala (titulazio osoa edo ibilbideak) duten titulazio ofizialekin matrikulatutako ikasleen kopurua (Gradua/Masterra)	Ez dagokio	1.348 / 419
1.3 STEM titulazioetan (zientzia, teknologia, ingeniariaritzaren eta matematika) matrikulatutako	12.431 / 1.981	13.350 / 2.240


ikasleen kopurua (Gradua/Masterra)			
1.4	Prestaketa-mailarekin bat datorren enpleguaren tasa	% 83	% 84
1.5	EPO eta PCT patenteen eskaera	16	24
1.6	EUSen diru-sarrerak, kontratu bidezkoak (M€)	19,3	22,9
1.7	Goi-mailako kualifikazioa azken lau urteotan EUSek sortutako enpresetan	206	253

Behin Titulazioen Mapa abian dagoela, 2019-2022 USPek aurreikusita dauka Aginte Taulan jomuga berriak txertatzea, bektore horri dagokionez titulazioak izandako bilakaerarekin lotutako jomugak, hain zuzen ere; zehazki, adierazle honen arabera neurtzen da bektore hori:

- EUSek «metodologia eta metodo berritzaileetan oinarritutako prestakuntza» bektorean eskainitako unibertsitate-irakaskuntza ofizialen kategorizazioan maila ertain/aurreratukoak diren graduko titulazioak (%).

EUSerako planteatzen diren jomuga horiek bete daitezzen, ezinbestean egin behar da unibertsitateen plangintza estrategiko bat, UEEE 2022rekin lerrokatuta egongo dena. Horretarako, unibertsitateen planetan kontuan hartu beharreko ezinbesteko elementu batzuk identifikatu dira.

12. taula: Elementu horiek ezinbestekoak dira Unibertsitatea+Enpresa Ardatza sustatzeko.



Unibertsitatea + Enpresa

- Titulazio-maparen eboluzioa unibertsitatea-enpresa bektorean
- Titulazio dualen eboluzioa
- Tutoreen prestakuntza (praktikaldia enpresan)
- LHrekiko lankidetzak
- RIS3 apustuekiko lerrokatzea
- Unibertsitate-enpresa estrategia garatzea
- Enpresa-gizartea lotura: gobernantza-organoak, komunikazioko eta loturako bideak (titulazioak definitzeko, praktikak koordinatzeko, prestakuntza duala eta abar)
- Patenteak sustatzea
- Kontratupeko diru-sarrerak kaptatzea

6.2 Sistemako unibertsitateen plangintza

EUSeko unibertsitateek, halaber, beste abiapuntu desberdin bat dute Unibertsitatea+Enpresa Ardatz honetan; izan ere, ikuspegi desberdina dute ardatz horretan kokatzeari dagokionez, baina horietako bakoitzean identifikatzen diren erronkei eta helburuei gagozkiela, ikuspegia berbera da:

- **Bikaintasun zientifikoarekin eta hark enpresa-sarean duen aplikazioarekin lotutako ezagutza sortzeari eta transferitzeari** dagokionez, elementu komun horiek hauetan oinarrituta daude:
 - Unibertsitatearen ezagutza eta gaitasun zientifiko eta teknologikoak sare sozioekonomikora gerturatzea.
 - Aliantza estrategikoen bitartez, ikerketa aplikatuaren transferentziak duen potentziala eta izan dezakeen inpaktu soziala areagotzea, eta eragile ekonomiko eta sozialekin lankidetzak-erlazio iraunkorrak finkatzea.
 - Ikertzaileen eta ikasleen artean ezagutza-transferentziaren kultura piztea.
 - Unibertsitatea Euskadiren garapen ekonomikorako funtsezko erreferentzia-eragile bihurtzea, enpresa eta erakundeen kide estrategikoa izan dadin sustatuz,

ezagutza, prestakuntza eta berrikuntzarekin lotutako helburuak elkarrekin lortze aldera.

- Bestalde, **goi-mailako gaitasunak eta enpresa-esparruko premietara aplikatutako eta egokitutako osagai bat dituen giza kapitala prestatzeari** dagokionez, EUSeko unibertsitate guztiek badituzte zenbait elementu komun, honako hauekin lotuak:
 - Goi-mailako gaitasunak dituen eta gizartearen premietara egokituta dagoen giza kapitala prestatzea, gizartearen garapenean lagundu dezan.
 - Tituludunen enplegarritasuna eta tituludunei lan-merkatuan kokatzea faboratuko duten jarduerak indartzea.
 - Prestakuntza dualeko eredu bat –eragile ekonomiko eta sozialekin lankidetzaz biziagoa izatean oinarritua– abiaraztea.
 - *Alumni* sarea sendotzea eta ikasleei lagun egitea euren garapen profesional eta pertsonalean.
 - Etengabeko prestakuntzaren eskaintzak ingurune-premiei erantzun diezaien sustatzea.

Erronka eta helburu komun horiei buruz, unibertsitateek euren planetan kontuan hartu behar dituzten ezinbesteko elementu jakin batzuk planteatzen dira:

- **RIS3 Euskadi euskal estrategiak** argi adierazten digu norantz doazen garapen teknologiko eta ekonomikoaren alorreko herri-apustuak. Erreferente horri dagokionez, plangintza estrategikoa eta ekintzen berrikuspina egiteko eskatzen die Eusko Jaurlaritzak EUSeko unibertsitateei: zehazki nola orientatzen dituzte gaitasun-sorkuntza eta I+G-ko eta berrikuntzako jarduerak RIS3 espezializazio-lerroetara?
- «Unibertsitatea+Enpresa» sektorearekin loturiko **Titulazioen Maparen bilakaerak** funtsezko garrantzia du. Unibertsitateek euren titulazioen bilakaera ahalbidetzeko moduko plangintza egin behar dute, «Unibertsitatea+Enpresa» sektorearekin lotutako ratio hobekak lortze aldera, ikasleek praktikak egiteari eta/edo enpresek praktikak diseinatzeko eta haiei jarraipena eta ebaluazioa egiteko batzordeetan parte hartzeari dagokienez.
- Unibertsitateek **unibertsitate-prestakuntza dualarekin** loturiko erronkan aurrera egiteko jarduketak planifikatu behar dituzte. Ildo horretan, aipamen duala duten titulazioen aintzatespena lortzeko protokoloa erreferentzia-elementua da.
- Aipamen duala duten titulazioekin lotuta, halaber, **tutoreak enpresetan prestatzeko** elementuak enpresetako egonaldien eta praktiken ereduak sendoa izango dela bermatzen du.
- **Lanbide-heziketako ikastetxeen eta Fakultateen** arteko lankidetzarekin lotutako erronka, bestalde, unibertsitate-ikasketak eta lanbide-heziketako ikasketak hibridatzeak dakartzan onurak aprobetxatzeko dituzten ibilbideak diseinatzean datza.
- Unibertsitateek **Unibertsitate eta Enpresaren arteko Estrategia** batez hornitu behar dute, esparru horretan egin behar duten jarduera zuzentzeko.
- EUSeko unibertsitateek **enprekin eta bestelako erakundeekin prestakuntza-esparruan duten erlazioan** sakontzeko ekintzak aurreikusi behar dituzte.
- EUSeko unibertsitateek, **ezagutza sortzeko premiaz gain**, ezagutza horren **balorizazioa ere hobetu** behar dute. Horri dagokionez, ezinbestean aurreikusi behar dira patenteak eskatzearekin eta ustiatzearekin lotutako emaitzak hobetzeko ekintzak.
- Halaber, unibertsitateek **kontratu bidezko diru-sarrerak lortzeko gaitasunak** hobetzea –hots, zerbitzuak erakarri eta baliabideak lortzea– ahalbidetuko dien ekintza-aurreikuspena egiteko aukera ere planteatzen da.

Aipaturiko elementu horiek guztiak noraezokoak dira eta, azken buruan, 2019-2022 USPen Aginte Taulan Unibertsitatea+Enpresa Ardatzean identifikatzen diren jomugetan eragina dute.

13. taula: Aurreikuspenen arabera EUSko unibertsitateek 2019-2022 Unibertsitatea+Enpresa Ardatzean mobilizatuko dituzten baliabideak.

Garapen-ardatzak (Euroak, milioitan)	Guztizko mobilizazioa, 2019-2022	2019-2022				
		Finantzaketa-iturri bakoitza (%)				
		UBB	FPEL	FPL	KDS	NF
2. A. Unibertsitatea+Enpresa	118,3 M€	% 30,7	% 31,2	% 0,0	% 38,1	% 0,1

(1) UBB: Unibertsitateen berezko baliabideak; FPEL: Finantzaketa publiko ez-lehiakorra; FPL: Finantzaketa publiko lehiakorra; KDS: Kontratu bidezko diru-sarrerak; NF: Nazioarteko finantzaketa.

EUSeko unibertsitateek guztira mobilizatuko dituzten baliabideak 188 M€-tik gorakoak izango dira 2019-2022 aldian; % 30,7 baliabide propioen bitartez mobilizatuko dira, eta gainerakoa, berriz, kanpoko finantzaketa-iturrien bidez.

7 Prestakuntza eta irakaskuntza-metodologia berritzaileak Ardatza

Prestakuntza eta irakaskuntza-metodologia berritzaileak Ardatza 2019-2022 USPen beste esku-hartze esparru bat da. Bikaintasun-ikerketak eta Unibertsitatea+Enpresa Ardatzekin ez bezala (izan ere, lehentasunezko gisa daude identifikatuta bi horiek), Eusko Jaurlaritzak ez du berezko planik proposatzen, unibertsitateek kontuan hartu beharreko ildo jakin batzuk baizik.

Esparru horretan, EUSeko unibertsitateek jarduera ona izan dute azken unibertsitate-planetan; halaber, Eusko Jaurlaritzaren aintzatespena dute; hori kontuan izanik, unibertsitateak berak dira, kasu honetan, euren plangintzaren protagonistak, nahiz eta ezinbesteko elementu batzuei heldu behar dieten.

Hori horrela izanik, Prestakuntza eta irakaskuntza-metodologia berritzaileak Ardatzak, plangintzaren ikuspegitik, Eusko Jaurlaritzaren ildo jakin batzuk ditu, unibertsitateen plan espezifikoek gain.

7.1 Garatu beharreko funtsezko elementuak

Prestakuntzak, unibertsitatearen lehenengo xedeak, oso eginkizun garrantzitsua izan du Unibertsitate Sistemaren plangintza hasi zenetik, bereziki, une jakin batzuetan, hala nola Europako esparruan titulazioak egokitzeko prozesua gauzatu zenean eta geroago, horiek finkatu zirenean. Esparru horretan, izan ere, unibertsitateek oso emaitza objektibo nabarmengarriak lortu dituzte.

Testuinguru horretan, eta jada aipatu dugun bezala, unibertsitateei jarduera ona aintzatesi zaie baina, hori alde batera utzita, 2019-2022 USPeK bi planteamendu bereizgarri txertatzen ditu:

- Batetik, Eusko Jaurlaritzak sustatzen duen **Titulazioen Maparekin**, garapen-ardatz batetik baino gehiagotik heltzen zaio prestakuntzari; zehazki, unibertsitateko titulazioak mapeatzeko baliatu nahi diren hiru bektoreekin loturiko ardatzetatik: «nazioartekotzea», «enplegarritasuna» («Unibertsitatea+Enpresa»); eta «irakaskuntza-metodologia berritzaileak baliatzea».
- Bestalde, prestakuntzaren ikuspegi holistikoago horretatik, Eusko Jaurlaritzak, 2019-2022 USPeKin, **talentua sortzea** ipintzen du herriaren berrikuntza-politiken erdi-erdian. Aurkikuntza zientifikoaren eta berrikuntzaren eragilea pertsonak direnez gero, prestakuntzak rol garrantzitsua izan behar du zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren alorreko plangintzetan.

Prestakuntza eta irakaskuntza-metodologia berritzaileak Ardatzarekin lerrotatuak, EUSEk bere indarraldian lortu beharreko azken jomuga batzuk identifikatzen ditu 2019-2022 USPek; hauekin zerikusia dute azken jomuga horiek: ikasketak bertan behera uztearen tasa eta graduatze-tasa; eta Docentian egiaztatutako (eta prestatutako) lllen ehunekoa.

14. taula: Prestakuntza eta irakaskuntza-metodologia berritzaileak Ardatza. EUSen jomugak 2022rako.


Adierazleak	Abiapuntu- datua (2016)	Jomuga 2022
3.1 Ikasketak bertan behera uztearen tasa (Gradua/Masterra)	% 16,2 / % 5,1	% 15,0 / % 4,9
3.2 Graduatzetasa (Gradua/Masterra)	% 56,9 / % 85,1	% 59,4 / % 85,2
3.3 Docentian edo baliokidean egiaztatuta egonik eskolak ematen dituzten lllen ehunekoa (Gradua/Masterra)	% 29,1	% 45,3

Behin Titulazioen Mapa zehaztuta dagoela, 2019-2022 USPek aurreikusita dauka Aginte Taulan jomuga berriak txertatzea, bektore horri dagokionez titulazioak izandako bilakaerarekin lotutako jomugak, hain zuzen ere; zehazki, adierazle honen arabera neurtzen da bektore hori:

- EUSEk «metodologia eta metodo berritzaileetan oinarritutako prestakuntza» bektorean eskaintutako unibertsitate-irakaskuntzen kategorizazioan maila ertain/aurreratutakoak diren graduako titulazioen ehunekoa.

EUSerako planteatzen diren jomuga horiek bete daitezela, ezinbestean egin behar da unibertsitateen plangintza estrategiko bat, Plan honekin lerrotatuta egongo dena. Horretarako, Prestakuntza eta irakaskuntza-metodologia berritzaileak Ardatzean unibertsitateen planetan kontuan hartu beharreko ezinbesteko elementu batzuk identifikatu dira. Elementu horiek behar-beharrezkoak dira, eta jada unibertsitateen agenda strategikoetan barne hartuta daude guztiak.

15. taula: Prestakuntza eta irakaskuntza-metodologia berritzaileak Ardatza sustatzeko derrigorrezko elementuak.

 Hezkuntzako prestakuntza eta metodologia berritzaileak	
<ul style="list-style-type: none"> • Titulazio-maparen eboluzioa metodologia berritzaileen bektorean • Master-eskaintza indartzea eta ikasle-kopurua handitzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Irakasle eta ikertzaileek hezkuntza-berrikuntzako programetan parte hartzea (%) • Docentian edo baliokidean egiaztatutako irakasle eta ikertzaileak

7.2 Sistemako unibertsitateen plangintza

Prestakuntza eta irakaskuntza-metodologia berritzaileak Ardatza bat dator, oso hein handian, EUSEko unibertsitate guztietan, planteatzen dituzten erronkei eta helburuei eta garatu nahi dituzten ekintzei dagokienez; hori bai, ñabardura desberdinak daude hezkuntza- eta prestakuntza-ereduen artean. Testuinguru horretan, erronka eta helburu komun batzuk identifika ditzakegu:

- Unibertsitateen hasi aurreko orientazioa emateko programa bat garatzea, DBHko, batxilergoko eta lanbide-heziketako ikasleen orientazio-premiei erantzuteko.
- Ikasleen prestakuntza integrala erdiestea, zeharkako gaitasunak garatuz.

- Prestakuntzan kategorizazio aurreratua izango duten titulazioak garatzea, metodo eta metodologia berritzaileetan oinarrituta.
- Graduaren eta Graduondokoaren erlazioa estuagoa izan dadin lortzea, euskal gizartearen prestakuntza-premia berriei eraginkortasunez erantzuteko.
- Hezkuntza berritzatzeko prozeduren ondoriozko premia berriei erantzuteko trebatuta dauden irakasleak izatea.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak baliatzea, irakaskuntza-prozesua garatzeko, haren modalitate guztietan.

Erronka eta helburuen inguruko ikuspegi komun horri buruz, unibertsitateek euren planetan kontuan hartu behar dituzten ezinbesteko elementu jakin batzuk planteatzen dira Prestakuntza eta irakaskuntza-metodologia berritzaileak Ardatzean:

- **Titulazioen Mapa zehaztearekin lotutako jomugak** finkatzea.
- **Masterren eskaintza indartzea**, ikasleak erakartzeko zereginean finkatzeari dagokionez, bereziki, EUSeko graduatuen artean.
- Ilak prestatzeko ahaleginari eustea, langile horiek **Hezkuntza Berritzatzeko Programetan parte hartuz**.
- **Docentian edo baliokidean parte hartzea**, prestakuntzaren alorrean ilak egiaztatzeko elementu garrantzitsu gisa.

16. taula: Aurreikuspenen arabera EUSko unibertsitateek 2019-2022 Prestakuntza eta irakaskuntza-metodologia berritzaileak Ardatzean mobilizatuko dituzten baliabideak.

Garapen-ardatzak (Euroak, milioitan)	Guztizko mobilizazioa, 2019-2022	2019-2022				
		Finantzaketa-iturri bakoitza (%)				
		UBB	FPEL	FPL	KDS	NF
3. A. Prestakuntza eta irakaskuntza-metodologia berritzaileak	157,4	% 56,3	% 32,8	% 7,0	% 1,3	% 2,6

(1) UBB: Unibertsitateen berezko baliabideak; FPEL: Finantzaketa publiko ez-lehiakorra; FPL: Finantzaketa publiko lehiakorra; KDS: Kontratu bidezko diru-sarrerak; NF: Nazioarteko finantzaketa.

EUSeko unibertsitateek guztira mobilizatuko dituzten baliabideak 157 M€-tik gorakoak izango dira 2019-2022 aldian; % 56,3 baliabide propioen bitartez mobilizatuko dira, eta gainerakoa, berriz, kanpoko finantzaketa-iturrien bidez.

8 Nazioartekotzea Ardatza

2019-2022 USPen Nazioartekotzea Garapen-ardatza txertatzeak esanbidez islatzen du garrantzi handia ematen zaiola EUS nazioartean orientatzeari dimentsio guztietan. Horrenbestez, Bikaintasun-ikerketaren, Unibertsitatea+Enpresa Ardatzaren eta Prestakuntza eta irakaskuntza-metodologia berritzaileak Ardatzaren zeharkako garapen-ardatz gisa planteatzen da nazioartekotzea. Laburbilduta, unibertsitatearen xede guztiei eragiten dien prozesu gisa planteatzen da; hots, ardatz honetan ez ezik, plan honen gainerako ardatzetan ere modu zabalean garatzen da.

Nazioartekotzea Ardatzak, plangintzaren ikuspegitik, Eusko Jaurlaritzaren ildo jakin batzuk ditu, unibertsitateen plan espezifikoek gain. Horretaz gain, Basque Country Nazioartekotze Estrategiarekin lerrotatzen da garapen-ardatz hori, European eta Akitania-Euskadi-Nafarroa euroeskualdean ardaztuta.


8.1 Garatu beharreko funtsezko elementuak

Nazioartekotzea funtsezko elementua da 2019-2022 USP bere ardatz guztietan garatzeko, bereziki, Bikaintasun-ikerketan Ardatzean eta Prestakuntza eta irakaskuntza-metodologia berritzaileak Ardatzean.

Ildo horretan, 2019-2022 USPek honako ildo hauek hartzen ditu barne:

- Bikaintasun-ikerketan Ardatza: Ikertzaileen mugikortasuna, Europako Ikerketan Esparruko parte-hartzea eta EUSeko eragileen kokapena nazioarteko *ranking*etan.
- Unibertsitatea+Enpresa Ardatza: Nazioartean, enpresetan esperientzia praktikoa hartzea.
- Prestakuntza eta irakaskuntza-metodologia berritzaileak Ardatza: Nazioartekotzea Ardatzean titulazioek izandako bilakaera; prestakuntza hizkuntza ez-ofizialetan, bereziki, ingelesezkoa; eta ikasleen mugikortasuna.

17. taula: Elementu horiek ezinbestekoak dira Nazioartekotzea Ardatza sustatzeko.



2019-2022 USPek jomuga erabakigarri batzuk identifikatzen ditu, Nazioartekotzea Ardatzarekin lerrokatuta daudenak, Planaren indarraldian lortu beharrekoak, prestakuntza hizkuntza ez-ofizialetan gauzatzen eta atzerrian mugikortasun-programetan parte hartzen duten ikasleekin, nazioarteko ikasleekin eta jardura hizkuntza ez-ofizialetan –bereziki, ingelesez– egiteko gaitasun egokiak dituzten llekin lotuta.

18. taula: Nazioartekotzea Ardatza. EUSen jomugak 2022rako.

Adierazleak	Abiapuntu-datua (2016)	Jomuga 2022
4.1 EUSeko ikasleen artean atzerrian mugikortasun-programetan parte hartzen dutenen ehunekoa (Gradua/Masterra)	% 5,2 / % 6,0	% 6,7 / % 6,7
4.2 EUSen matrikulatutako ikasleen artean atzerriarrak direnen ehunekoa (Gradua/Masterra/Doktoregoa)	% 4,2 / % 18,0 / % 22,0	% 5,2 / % 18,7 / % 21,4
4.3 Hizkuntza ez-ofizialeko egiaztagiriak dituzten lleen ehunekoa (C1 maila)	% 26,5	% 30,7

Behin Titulazioen Mapa zehaztuta dagoela, 2019-2022 USPek aurreikusita dauka Aginte Taulan jomuga berriak txertatzea, bektore horri dagokionez titulazioak izandako bilakaerarekin lotutako jomugak, hain zuzen ere; zehazki, adierazle honen arabera neurtzen da bektore hori:

- EUSek «nazioartekotzea» bektorean eskainitako unibertsitate-irakaskuntzen kategorizazioan maila ertain/aurreratukoak diren graduoko titulazioak (%).

8.2 Sistemako unibertsitateen plangintza

EUSeko unibertsitateek badituzte erronka eta helburu komun batzuk Nazioartekotzea Garapen-ardatzean:

- Prestakuntzako, ikerketako, transferentziako eta garapeneko jardueretan lankidetzan aritzeko aliantza estrategikoak ezartzea.
- Nazioarteko titulazio berriak diseinatzea eta abiaraztea.
- Programa eta titulazioetan nazioarteko dimentsioa txertatzea.
- Ikasketak, praktikak, prestakuntza eta ikerketa egiteko mugikortasuna areagotzea eta dibertsifikatzea.
- Nazioarteko bisitariak erakartzeko ekintzak sustatzea.
- Hizkuntzeekin eta kulturartekotasunarekin lotutako gaitasunen inguruko prestakuntza sendotzea eta hura egiaztatu dadin bultzatzea.
- Nazioarteko *ranking* jakin batzuetako kokapena hobetzea.

EUSeko unibertsitateek honako elementu hauek biltzen dituzte euren planetan:

- Bikaintasun-ikerketa Ardatza:
 - Nazioarteko aipamena duten tesiak bultzatzea, aldez aurretik, nazioarteko erreferentzia-zentro batean ikerketa-egonaldiak egitea dakarten tesiak, hain zuzen.
 - Ikertzaileen nazioarteko mugikortasuna sustatzea.
 - H2020 programan etengabe egotea, esparru jakin batzuetan buru izateko helburuarekin.
 - Unibertsitateen kokapena nazioarteko *ranking*etan; estrategia bat abiaraztea ere hartzen da barne, batetik, lehenetsitako *ranking*etan aurrera egiteko, eta bestetik, *ranking* horiek kudeaketaren eta informazioa ematearen inguruan ezartzen dituzten baldintzak betetzeko behar diren baliabideez hornitzeko.
- Unibertsitatea+Enpresa Ardatza: Prestakuntza i-duala sustatzearekin lotutako ekintzak barne hartzea; hau da, nazioarteko testuinguruan eta/edo Euskadiko enpresek atzerrian dituzten delegazioetan enpresekin ikuspegi dualeko egokitzapena gauzatzea.
- Prestakuntza eta irakaskuntza-metodologia berritzaileak Ardatza: Titulazioen Maparen barnean, «nazioartekotzea» sektorean bilakaera izatea eta horretarako behar diren exijentziak betetzea: hizkuntza-gaitasunak sortzea; hizkuntza ez-ofizialetan kredituak ematea, hizkuntzeekin loturiko prestakuntza eskaintzea eta prestakuntza hori egiaztatzea; eta ikasleen mugikortasuna.

19. taula: Aurreikuspenen arabera EUSko unibertsitateek 2019-2022 Nazioartekotzea Ardatzean mobilizatuko dituzten baliabideak.

Garapen-ardatzak (Euroak, milioitan)	Guztizko mobilizazioa, 2019-2022	2019-2022				
		Finantzaketa-iturri bakoitza (%)				
		UBB	FPEL	FPL	KDS	NF
4. A. Nazioartekotzea	54,4 M€	% 37,6	% 30,2	% 0,2	% 0,0	% 32,0

(1) UBB: Unibertsitateen berezko baliabideak; FPEL: Finantzaketa publiko ez-lehiakorra; FPL: Finantzaketa publiko lehiakorra; KDS: Kontratu bidezko diru-sarrerak; NF: Nazioarteko finantzaketa.

EUSeko unibertsitateek guztira mobilizatuko dituzten baliabideak 54 M€-tik gorakoak izango dira 2019-2022 aldian; % 37,6 baliabide propioen bitartez mobilizatuko dira, eta gainerakoa, berriz, kanpoko finantzaketa-iturrien bidez.

9 Unibertsitate-komunitatea Ardatza

Garapen-ardatz hori unibertsitate-komunitatea osatzen duten kolektiboekin lotutako zenbait jomuga lortzera bideratuta dago. Ardatz horretan arreta-esparru batzuk proposatzen dira, eta unibertsitateek, bestalde, gauzatu beharreko ekintza batzuk planteatzen dituzte.

Zehazki, hiru esku-hartze esparru identifikatu dira Unibertsitate-komunitatea Ardatzean: genero-berdintasuna sustatzea; euskararen erabilera hedatzea; eta ekitatea.

Planteamendu horrekin, 2019-2022 USPen Aginte Taulak barnean hartzen du emakumeen presentzia Ilen artean, ikasle guztien artean eta STEM ikasleen artean; halaber, II elebidunei eta euskarazko prestakuntza jasotzen duten ikasleei jarraipena egiten die.

Emakumeek unibertsitate-komunitatean duten presentziari dagokionez, EUSerako finkatzen diren jomugak lotuta daude emakumeek euskal gizartean duten protagonismo baliokidea izatearekin: biztanleriaren % 52.

20. taula: Unibertsitate-komunitatea Ardatza. EUSen jomugak 2022rako.

Adierazleak	Abiapuntu-datua (2016)	Jomuga 2022
5.1 Hirugarren hezkuntza duten 25-64 urteko pertsonak (%)	% 53,8	% 56,2
5.2 Emakumeen %, Ilen guztizko kopuruaren barnean	% 47,4	% 52,0
5.3 Ikasle guztien barnean, emakumezkoen ehunekoa (batezbestekoa Gradua/Masterra/Doktoregoa)	% 52,5	% 52,0
5.4 Emakumeen ehunekoa STEM Graduko ikasketetan matrikulatutako ikasle guztien barnean	% 32,5	% 52,0
5.5 II elebidunen ehunekoa, Ilen guztizko kopuruaren barnean	% 52,0	% 60,1
5.6 EUSeko ikasleen barnean, prestakuntza euskaraz ematen dutenen ehunekoa (Gradua/Masterra/Doktoregoa)	% 46,5 / % 11,8	% 56,7 / % 13,8

Aginte Taulan arreta-esparru horiei egiten zaien jarraipenaz aparte, EUSeko unibertsitateen adierazle espezifikoek alderdi horretan sakontzen dute, eta Ilen kategorია profesionalen araberako bereizketa egiten dute egoera horri dagokionez.

21. taula: Aurreikuspenen arabera EUSko unibertsitateek 2019-2022 Unibertsitate Komunitatearen Ardatzean mobilizatuko dituzten baliabideak.

Garapen-ardatzak (Euroak, milioitan)	Guztizko mobilizazioa, 2019-2022	2019-2022				
		Finantzaketa-iturri bakoitza (%)				
		UBB	FPEL	FPL	KDS	NF
5. A. Unibertsitate-komunitatea	142,7 M€	% 27,6	% 71,9	% 0,1	% 0,4	% 0,0

(1) UBB: Unibertsitateen berezko baliabideak; FPEL: Finantzaketa publiko ez-lehiakorra; FPL: Finantzaketa publiko lehiakorra; KDS: Kontratu bidezko diru-sarrerak; NF: Nazioarteko finantzaketa.

EUSEko unibertsitateek guztira mobilizatuko dituzten baliabideak 142 M€-tik gorakoak izango dira 2019-2022 aldian; % 27,6 baliabide propioen bitartez mobilizatuko dira, eta gainerakoa, berriz, kanpoko finantzaketa-iturrien bidez.

10 Euskal Unibertsitate Sistemari laguntzeko ekintzak

2019-2022 Unibertsitate Sistemaren Planaren esparruko ekintzei dagokienez, hiru mailatako ekintzak eratzen dira: Sistema Publikoari Laguntzeko Oinarrizko Ekintzak, Ekintza itunduak eta Sistemaren Ekintza Osagarriak.

Unibertsitate-sistema publikoari laguntzeko oinarrizko ekintzak helburuetara bideratuta dauden jarduketak dira, egiturari eragiten diotenak eta Euskal Herriko Unibertsitatearen jarduerari eusteko jomuga dutenak. Funtsezko bi baliabideren bitartez hezurmamitzen dira praktikan: batetik, Ekarpen Arruntean; bestetik, Urte Anitzeko Inbertsio Planaren babesean.

Ekintza itunduak, berriz, garapen-ardatz bakoitzean EUSEko unibertsitateen planetan biltzen diren jarduketak dira; horietan, gauzatu beharreko ekintzak eta lotutako finantzaketa ez ezik, Eusko Jaurlaritzak hitzemandako finantzaketa eskuratzeko lortu behar diren jomugak ere ezartzen dira. Oro har, urte anitzeko jarduketak dira, unibertsitate bakoitzaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean lan-egutegi adostu bat osatzeko.

Programa-kontratuaren eskema baten bidez funtzionatzen dute ekintza horiek, eta unibertsitateen funtzionamendu- eta kudeaketa-egiturak hobetzen laguntzea da horiek sustatzearen helburua. Laburbilduz, EUSEko unibertsitateek hainbat esparrutan aurrera egin dezaten lortu nahi da ekintza horien bitartez, egitura- eta kudeaketa-aldaketak txertatuta.

2019-2022 USPen eta haren aurrekoen arteko desberdintasun nagusiak, ekintza itunduei dagokienez, funtsezko bi alderditan kontzentratzen dira: unibertsitateek konpromisoa hartzen dute plan bakoitzean bildutako ekintza guztiak –garapen-ardatzaren arabera– betetzeko, eta Eusko Jaurlaritzak, berriz, ekintza horietako batzuk babesteko.

Horren guztiaren ondorioz, ahalegin partekatua egitea planteatzen da; zehazki, ekintza itunduen finantzaketan Eusko Jaurlaritzak hartuko du parte; beste ekintza batzuen kasuan, berriz, gehienak Eusko Jaurlaritzak finantzatuko ditu; beste batzuk, ordea, Eusko Jaurlaritzak eta unibertsitateek finantzatuko dituzte ekitatiboki; beste ekintza batzuk, azkenik, unibertsitateek finantzatuko dituzte hein handiagoan.

Eusko Jaurlaritzaren babesa duten planetan bildutako ekintzetarako laguntza programa-kontratuaren bidez bideratzen da.

